

OSASUNAREN LENTEAREN ANALISIA

IV. INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA



OSASUNAREN LENTEAREN ANALISIA

IV. INGURUMEN ESPARRU PROGRAMA

Egilea:

Osasun Saila

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkari Nagusia

Euskadiko Osasuna Politika Guztietan Batzorde Teknikoa

Eusko Jaurlaritzaren Ekintzarako Koordinazio Zuzendaritza

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Emakunde - Emakumearen Euskal Institutua

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Saila

Ogasun eta Finantza Saila eta

Enplegu eta Gizarte Politiken Saila

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

Merkataritza, Turismo eta Nekazaritza Saila

Osakidetza/Osasunaren Euskal Zerbitzua

Osasun Saila

Adituen batzordea

Elena Aldasoro

Amaia Bacigalupe

Concha Castells

Juan Carlos Fernandez Crespo

Santiago Esnaola

Maribel Larrañaga

Unai Martin

Pepe Quintas

Carlos Sola

Redakzioa sektoreen arteko lantaldea

Elena Aldasoro (Osasun Saila)

María Blanco (Osasun Saila)

Alex Boto (Ingurumen Saila)

Patxi Cirarda (Osasun Saila)

Marta Iturribarria (Ingurumen Saila)

Unai Martin (Soziologia 2 Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea)

Elena Serrano (Osasun Saila)

Iñaki Vaquero (Lehendakaritza)

AURKIBIDEA

1. Laburpen exekutiboa	7
2. Sarrera	9
3. Ingurumen-politikak Osasuna Politika Guztietan estrategiaren esparruaren baitan	13
4. Osasuna Politika Guztietan ikuspegia izateko (OPG) alorrean metatutako esperientzia Euskal Autonomia Erkidegoan	15
5. Helburuak	17
6. Metodologia	19
7. Osasun-lentearen analisiaren prozesua	23
7.1. Akordioa eta konpromisoa	23
7.2. Ebidentzia-bilketa	24
7.2.1. 2020 Ingurumenaren IV. Esparru Programa analisia	24
7.2.2. Ebidentzia zientifikoaren berrikuspena eta sintesia	24
7.2.2.1. Ingurumen-politika mugatzaile sozialen eta osasuneko ekitatearen ikuspegitik	26
7.2.2.2. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa eta osasuna txertatzea (inpaktuak integratzea)	28
7.2.2.3. Natura, biodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak ..	31
7.2.2.4. Naturaguneak	33
7.2.2.5. Lurralde-antolamendua eta hiri-plangintza	36
7.2.2.6. Garraioa eta mugikortasuna	38
7.2.2.7. Elikadura zirkularra eta arduratsua	41
7.2.2.8. Klima-aldaketa	43
7.2.2.9. Gizarte/Herritar/Komunitatearen partaidetza	45
7.2.2.10. Enplegua eta ekonomia berdea	47
7.2.2.11. Efizientzia energetikoa	49
7.2.2.12. Desparekotasunak ingurumen-arriskuaren banaketan	51
7.2.2.13. Ingurumen-arrisku berriak eta osasunarekiko erlazioa	55



7.2.3. IV. IEPren elementuek osasunarekin duten erlazioari buruzko ebidentzia zientifikoaren taula	62
7.3. Osasunaren mugatzaile sozialetan inpaktuak identifikatzea, gomendioak eta amaierako txostena egitea.	71
7.3.1. Biztanleriaren osasunean izan daitezkeen inpaktuak identifikatzea	71
7.3.2. Osasunean efektua maximizatzeko gomendioak	73
7.4. Nabigazioa	78
7.5. Ebaluazioa	78
8. Erreferentzia bibliografikoak	79
9. Eranskinak	87
9.1. 1. eranskina. IV. Programa esparruaren laburpen analitikoa 2020 ingurumena	87
9.2. 2. eranskina. 2020 IV. IEPren osasunaren mugatzaile sozialen inpaktuak, Eusko Jaurlaritzan baliozkotutako tresnarekin identifikatuak	95
9.3. 3. eranskina. Laburdurak	104



1. LABURPEN EXEKUTIBOA



Osasuna eta osasunean ekitatea izatea ezinbesteko baldintzak dira gainerako ondasun sozialak erdiesteko, baina, aldi berean, beren mugatzaileetako askok jatorria gizartean, ingurumenean eta ekonomian dute. Ondorioz, edozein mailako gobernantzako politika publiko sektorialek inpaktu esanguratsua dute biztanleriaren osasunean.

Osasuna Politika Guzietan (OPG) estrategiak bitarteko bat eskaintzen du ez soilik politika publikoen inpaktu zuzenak identifikatzeko, baita nahita egin ez diren inpaktuak identifikatzeko ere, eta ziurtatzen du osasuna eta osasunean ekitatea izatea erabaki-hartzeetan kontuan izan daitezela.

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politikak elementu komunak mantentzen ditu estrategia horrekin, zeren, ingurumena zaintzeaz gain, biztanleriaren ongizateaz arduratzen baita. Hori islatzen da bere konpromisoan; izan ere, karbono-emisio gutxiko gizarte bat lortu nahi du, baita ekonomia berde eta zirkularra ere, herritarren ongizatearen oinarriak ezarriko dituzten erresilentziadun ekosistemak lortzeaz gain.

Hemen aurkeztuko dugun lanak Eusko Jaurlaritzaren (EJ) 2020 Ingurumenaren IV. Esparru Programak biztanleriaren osasunean eta osasuneko ekitatean izan dezakeen inpaktuaren analisiaren prozesua deskribatzen du. Osasun Lentearen Analiaren (OLA) metodologia erabili da, Hegoaldeko Australiako Gobernua-ren Osasun Sailarena egokituta. Identifikatutako inpaktuez gain, biztanleriaren osasunean efektu positiboa areagotzeko eta inpaktu negatiboak arintzeko edo desagerrarazteko gomendioak aurkeztuko dira.

OLAREN prozesu honetan estrategiak arrakasta izateko ezinbestekoak izan dira gobernantza-elementu hauek: 2013-2020 Osasun Planaren agindu esplizitua, zuzendaritzek osatutako sailarteko OPGren Batzorde Tekniko bat, EJren Lehendakariaren Idazkari Nagusiaren Koordinaziorako Zuzendaritzaren babes, Aduituen Batzorde bat eta teknikarien talde bat, hauek osatua: Osasun eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailako teknikariek, aipatutako Koordinaziorako Zuzendaritzako pertsonalak eta Euskal Herriko Unibertsitateko pertsonalak.

OLA 5 fasetan garatu da: 1) konpromisoa, 2) ebidentzia-bilketa, 3) gomendioak eta amaierako txostena egitea, 4) nabigazioa eta 5) ebaluazioa. Osasuneko mugatzaile sozialetako (OMS) inpaktua identifikatzeko tresna bat erabili da, euskal testuinguruan aurrez landua eta baliozkotua, eta ekitatearen ikuspegia txertatzen du Mugatzaile Sozialen Batzordearen eredian oinarrituta. Tresna horrek OMSak bi mailatan sailkatzen ditu, osasuneko desberdintasunen maila estrukturala eta bitartekoa.

Lan honetan ondorioztatu zen Ingurumeneko IV. Esparru Programaren balizko inpaktua osasunaren mugatzaile sozial gehienetan, bai estrukturaletan bai bitartekoetan, positiboa izango litzatekeela. Halere, ez zegoen ziurtasunik OMS batzuetako inpaktuaren zentzuari dagokienez. Kasu horietan, planaren neurri



batzuek ondorio positibo bat izango bazuten ere, beste ekintza batzuek kontrako efektua izan zezaketen eta, beraz, zailagoa zen emaitza aurreikustea.

OMSen maila estrukturalaren kasuan (osasuneko desparekotasunen jatorria izango lirateke) aurreikusten da politika honek jasangarritasunaren zein osasunaren balio sozialak indartuko dituela eta ongizatearen zein gobernantzaren egoera hobetuko dituela. Era berean, espero da osasuneko desparekotasunak murriztea adina eta dibertsitate funtzionala dela eta.

Ez zegoen halako ziurtasunik bidezko garapen ekonomikoaren efektuaz, genero-desparekotasunaz, desparekotasun sozioekonomikoez eta hiri- zein landa-eremuen arteko desparekotasunez.

Bitarteko mugatzaileei dagokienez, inpaktu positibo bat identifikatu zen enplegu-aukeretan, ingurumenaren kalitatean, ingurune naturaletan, garraio publikoan eta mugikortasun aktiboa sustatzen duten egituretan. Aurreikusteko modukoa da tokiko arloan aberastasun-atxikipena asko indartuko dela eta ondasun zein zerbitzuetarako sarbidea hobetuko dela (enplegua, hezkuntzako, prestakuntzako eta osasuneko zerbitzuak, elikadura, saltokiak oro har eta aisialdirako zein olgetarako instalazioak). Gainera, etxebizitzaren eta sistema sanitarioaren kalitatea hobetzen lagun dezake. Halere, zalantzak zeuden enpleguaren eta sortzen ari diren enpleguen lan-baldintzen kalitatean izan dezakeen efektuari buruz.

Faktore psikosozialen artean, politika sektorial honek estres psikosoziala murriztuko luke eta kohesio soziala eta autoestimu indibiduala zein kolektiboa areagotuko litzuke.

Azkenik, efektu positibo horiek maila indibidualean ere inpaktu positiboa izango lukete, pertsonak beren bizitzarekiko kontrol handiagoa izango bailukete eta portaera osasungarriagoak errazago hartzen lagunduko bailukete. Azken horietako batzuk hauek dira: ariketa fisikoa, pertsonen arteko erlazioak areagotzen dituzten jardueretan parte hartzea eta alkoholaren, tabakoaren eta droga ilegalen kontsumoa murriztea. Era berean elikadura sanoari buruzko ziurgabetasun-arlo bat identifikatu zen, zeren elikagaietarako sarbide hobe batek ez baitu beti dieta osasungarriago bat ekartzen.

2020 Ingurumenaren IV. Esparru Programak osasunean duen inpaktu positiboaren indar guztia (osasuna sortzen duten elementuak ere hartzen ditu) maximizatu ahal izango litzateke bertan lehen aipatutako OMSetako ziurgabetasuna deuseztatzeko ekintzak txertatuko balira.

Horrela, bidezko garapen ekonomiko bat lortzeko, gomendagarria izango litzateke hainbat talde sozial kontuan hartzea (generoa, klase soziala, jatorrizko herrialdea edo kokapen geografikoa) definizioan eta politika garatuko duten jarduketak ezartzea.

Halaber, komenigarria izango litzateke ekintzak txertatzea enpleguaren kalitatea murriztu dadila eta lan-baldintzak txartu daitezela saihesteko. Dieta osasungarriari dagokionez, sozioekonomikoki gizarte-egoera ahulean dauden taldeetan batez ere, esku-hartzea proposatzen da, elikagaietarako sarbide handiago batek ez dezan ekar janari prozesatuaren kontsumo handiagoa. Biztanleen kasuan, osasunaren eta ingurumenaren arteko sinergiak aprobetxatzea proposatu da, elikagaien industriaren sektorearekin lan egiteko beren produktuetan kalorien edukia, gatza, gantz aseak eta azukre libreak murriztu ditzaten, baita hondakin gutxiago sortzeko ere.

Beste gomendio batzuk biztanle-talde ahulenetarako (bereziki adina eta kokapen geografikoa kontuan hartuta) aldaketa klimatikoaren estrategia egokitzeari buruzkoak dira, eta lorategi tradizionalen diseinuan guk ikusi ahal izateko eta gainerakoek gu ikusi ahal izateko neurriak txertatzeari buruzkoak dira, horrela jarduera arriskutsuak egiteko pizgarriak kenduko baitira. Halaber, proposatzen da biztanleriaren eta osasuneko ekitatean eragiten duten ingurumen-faktoreak monitorizatzea, ingurumen-arrisku berriek eta praktika jasangarri berriek osasunarekiko duten erlazioari buruzko ezagutza areagotzeko ekimenetan parte hartzea eta OLAREN prozesuaren inpaktua eta bere jarraipena ebaluatzea.

Plana garatzen bada osasunarekiko eta osasuneko ekitatearekiko erlazioan oinarrituta, espero izatekoa da hobetzea euskal biztanlerian osasunarekin eta osasunaren autobalorioarekin erlazioan dutako bizi-kalitatea, murriztea hilkortasun goiztiarra, gaixotasun ugariaren eragina, zirkulazio-istripuak, insomnia eta hobetzea buruko minak eta buruko osasuna eta haurtzaroko garapen kognitiboa.



2. SARRERA

2002. urtetik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak bere politika sanitarioak ekitatearen eta osasuneko mugatzaile sozialen (OMS) ikuspuntutik definitu ditu. Ikuspegi horrek zerbitzu sendagarriekin biztanleriaren mailan eta maila pertsonalean osasuna sustatzeko eta prebenitzeko ekintzak integratzen aurrera egiteko helburua du, eta horrela emaitza optimoak lortuko lirateke osasunean era ekitatiboan.

2015aren amaieran milurtekoaren garapenaren helburuak ordeztu dituzten garapen jasangarriaren helburuetako¹ baten xedea da (hirugarrena) bizitza osasungarriak bermatzea eta ongizatea sustatzea, adin guztietako pertsona guztientzat. Kontuan izanik duen ekintza mundialerako alorra, nabarmendu egiten da garrantzitsua dela herrialdeek estaldura unibertsaleko osasun-sistemak izatea. Halere, beharrezkoa da, gaixotasunak tratatzeko zerbitzuetara joateko gehiegizko joera saihesteko, estatuak testuinguru zabalagoa izatea osasunaren alorreko gobernu-ekintzan; hala, etxebizitza, ingurumena, hezkuntza eta politika fiskalak kontuan izan beharko lituzke².

Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko azken Osasun Plana, 2013-2020 aldirako Euskadirako osasun-politikak, kontuan hartzen du planaren lehentasunezko 5 arloetako lehenengo gisa, ekitateari eta erantzukizunari buruzkoa. Osasuna gizarte osoaren helburu bat dela oinarri gisa hartuta, arlo horren helburua da sektoreen arteko ekintza sustatuko duen erakundearteko konpromiso bat lortzea, gobernuaren barnean zeharkako erlazio bat bezala, politika publiko guztiek eta gobernuak biztanleen osasunaren eta osasunean ekitatea izatearen alde lan egin dezan³.

Osasuna Politika Guztietan (OPG) terminoak estrategia bati egiten dio erreferentzia; bertan, hainbat sektorek kontuan izaten dute, era kontziente eta arduratsuan, erabakiak hartzeko prozesuek biztanleriaren osasunean eta biztanleriaren hainbat taldetan duten inpaktua. Bere

-
- 1 Open Working Group Proposal Sustainable Development Goals. Sustainable Development Goals. A/68/970. WHO: General Assembly, 2014
 - 2 Schmidt Harald, Gostin Lawrence O, Emanuel Ezekiel J. Public health, universal health coverage, and Sustainable Development Goals: can they coexist?. The Lancet 2015;6763(15):60244-6
 - 3 Departamento de Salud. Gobierno Vasco. *Políticas de salud para Euskadi 2013-2020*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2013



helburu nagusia biztanleen osasuna hobetzea da, ahalik eta erarik zabalenean esku hartzen saiatuz OMSetan, osasunaren sektoreak horietan duen eragina mugatua baita ⁴.

Dahlgren eta Whitehead⁵ egileen arabera, pertsonen osasunari eragiten dioten faktoreak hainbat geruza gainjarrietan egituratzen dira, hasi indibidualetatik, esaterako sexua edo faktore genetikoak, testuingurukoetara arte, sozioekonomikoak eta ingurumenekoak esaterako. Osasun-zerbitzuak, tradizioz politika sanitarioen helburua izan dira, eta bizitza- eta lan-baldintzei buruzko geruzan kokatzen dira (1. irudia). Eredu horrekin bat egiten du Marc Lalondek Kanadako biztanleen osasuna azaltzeko; izan ere, 1974an adierazi zuen zerbitzu sanitarioek biztanleriaren osasun-egoerari eragiten dion ekarpena erlatiboki txikia dela (% 10-11)⁶.

1. irudia.

Dahlgren eta Whitehead egileen osasunaren mugatzaile sozialen eredu egokitua



4 TapaniMelkas. Health in all policies as a priority in Finnish policy: a case study on national health policy development. *Scandinavian J Public Health*, 2013;41 (suppl 11):3-28

5 Whitehead Margaret, Dahlgren Göran, Gilson Lucy. Developing the policy response to inequities in health: a global perspective. In: *Challenging inequities in health care: from ethics to action*. New York: Oxford University Press, 2001:309-322

6 Dever, G.E. An epidemiological model for health policy analysis. *Social Indicators Research* 1976;2 (4): 453-466



Osasunaren balorazioa sektore estrasanitarioen helburuetan integrazteko beharraren oinarria da osasun-arazoek muga oso lausoak dituztela, OMSak oso hedatuta baitaude, osasun-sektorearen irismenetik kanpo, eta ezin dira konpondu sektore horren ezta beste edozein sektoreren ekintza eskusiboekin.

1985ean Geoffrey Rose epidemiologoak artikulua bat argitaratu zuen izenburu honekin: Gizabanako gaixoak eta biztanleria gaixoak; bertan, azaltzen zen osasunaren mugatzaile nagusiak batik batik ekonomikoak eta sozialak badira, ondorioz, erremedioek ere ekonomikoak eta sozialak izan behar dutela. Horregatik, planteatzen zuen Medikuntza eta politika ezin direla bereizita mantendu⁷.

Gertaera hori are eta nabarmenagoa da, interesa osasuneko ekitaterik eza murriztean zentratzen bada, horrek ezinbestean hierarkia sozialaren barnean kokapen desparekoaren erantzuleak diren faktoreetan zentratzea dakar. Faktore horiek desparekotasun soziala sortzen dute, halaber, kausen kausak esaten zaie, era berean, bizitza-baldintzekin zerikusia duten faktoreak eta osasunarekin erlazionatutako jarrerak ere, osasuneko desparekotasunen mugatzaile sozialen esparru kontzeptualen osagaiak dira⁸.

Duela 28 urte, Otawako agiriaren deklarazioarekin⁹, sano egotea gizabanakoei eta komunitatei osasuneko mugatzaileetan kontrol handiagoa izatea eta bizitza aktiboa zein produktiboa izatea ahalbidetzen dien prozesu gisa ulertu zen. Ordutik, osasuna ez da helburutzat jotzen, baizik eta osasuna bizitza arruntaren aberastasun-iturriztat jotzen da eta ikuspegi positibo batetik ulertzen da, hau da, baliabide sozial eta pertsonalak zein trebezia fisikoak azpimarratzen dituen ikuspegitik.

Illo horri jarraikiz, teoria salutogenikoaren testuinguruan egindako ikerketek frogatu dute eskuragarri dauden baliabideak erabiltzeko gaitasunak garatzen dituzten eta arazoak konponzen zein emaitza positiboak izaten zentratzen diren pertsonen osasun, osasun mental eta gaixotasun kronikoetarako egokitzapen hobea dutela. Era berean, bizi-kalitate eta ongizate handiagoa dute, jarrera osasungarriagoak dituzte eta luzaroago bizitzen dira¹⁰.

Pertsonak bizitzen diren baldintzak hobetzera bideratutako politika publiko osasungarriak sortzeak, hainbat pauso logiko dakartza. Horietako lehena, oinarritzkoa baita, arazoa eta bere kausak identifikatzea da, eta horrek politikaren plangintzaren hiru adarretako lehenarekin bat egiten du Kingdonen arabera (arazoak, politikak eta politika)¹¹. Bigarren pausoa, irtenbideak bilatzen dira politika sektorialetan aldaketak sortzen dituzten proposamenen bidez, eta faktore salutogenikoak identifikatzeko fase honetan arazoa identifikatzea bezain oinarritzkoa da. Hau da, ez dela nahikoa eskura dauden baliabideak ezagutzea, baizik eta, gainera, horiek positiboki garatu ahal izateko mekanismoak ezarri behar dira; alderdi hori, ordea, askotan ahaztu egiten da erabakiak hartzeko prozesuetan.

7 Rose Geoffrey. Sick individuals and sick populations. *Int J Epidemiol* 1985;14:32-8

8 Commission on social determinants of health. *A conceptual framework for action on the social determinants of health*. Discussion paper for the Commission on Social Determinants of Health. April 2007

9 Organización Mundial de la Salud OMS y Bienestar Social de Canadá. *Carta de Ottawa para la Promoción de la Salud*. Ottawa, Canadá: 1986.

10 Lindström Bengt, Eriksson Monica. *The salutogenic approach to the making of HiAP/healthy public policy illustrated by a case study*. *Global Health Promotion* 2009;16:17-28

11 Kingdon John W. *Agendas, Alternatives, and Public Policies*. 2nd edition. Longman, 2011



Aurreko guztia dela eta, OPG estrategia batek hala osasunerako kaltegarriak diren efektuak identifikatu behar ditu nola osasuna eta ongizatea mantentzeko pertsonen eta komunitateen gaitasuna indartzen dituzten faktoreak, hau da, osasunerako aktiboak izenekoak identifikatu behar ditu. Horrela, politika publikoek osasunean duten inpaktua baloratzeak efektu kaltegarriak saihestuko dituzten eta horien efektu positiboa maximizatuko duten gomendioak proposatzeko balioko du.

Osasun Publikoaren arloan, bestelako sektore batzuekin lan egitea, esaterako, hezkuntza, segurtasuna, ingurumena, enplegua edo zerbitzu sozialak, ohikoa izan da duela hamarkada batzuetatik. Sektore desberdinen arteko erlazio hori eboluzionatuz joan da eta, gaur egun, faktore sozialek osasunarekin duten erlazioari buruz gero eta ebidentzia zientifiko handiagoa dagoenez, aurrera egiten jarraitzea sektoreen arteko lana efektiboagoa izan dadin, 10 ekintza politikaren barnean lehentasun bihurtu da.

Sektoreen arteko lanak "hainbat sektoreen ahalegin komun gisa definitua politika ulerkorrek eta integratuak sortzeko, horiek erantzuna eman diezaien behar orokorre" hainbat maila ditu, sektoreen arteko konpromiso-mailaren arabera¹². Erlazio sinpleenetik (informatiboa izeneko, bertan aktoreetako batek du funtzio aktiboa) hasi eta mailarik gorenera arte, integrazioaren mailara arte, maila horrek eskatzen baitu politikak edo programak definitzea beste sektoreekin batera.

OPG pauso osagarri bat da integrazioaren maila honetan. Sektoreen arteko ekintza ez da soilik planteatzen arazoak konpontzeko estrategia bat bezala, baizik eta politika berria garatzeko eta sortzeko arlo bat bezala, baldin eta politika horiek bizitza-kalitatea eta ongizatearen terminoetan formulatutako helburuak lortzera bideratuta badaude. Kontua da osasuna politika guztien ardatzetako bat bezala hartzea eta sektore ez-sanitorioek beren ekimenen osasuneko inpaktua beren helburu estrategikoetako bat bezala hartzea (osasun hobea biztanleria osoarentzat).

12 Solar Orielle, Valentine Nicole, Rice Marilyn, Albrecht Daniel. *Moving forward to equity in health. Partnership and intersectoral action*. Conference working document. Nairobi: 7th Global Conference on Health Promotion, October 2009:



3. INGURUMEN-POLITIKAK OSASUNA POLITIKA GUZTIETAN ESTRATEGIAREN ESPARRUAN

Ingurumen-politiken planteamenduak eboluzionatu egin du azken urteetan ingurumenaren garapen jasangarrian aurrera egiteko. Euskadiren kasuan, ingurumen-politikak Europar Batasunaren Estrategiarekin bat egiten du. Estrategia horrek 2050erako planteatzen du karbono-isuri baxuak dituen gizartea bat izatea, ekonomia berde eta zirkular bat eta herri-tarren ongizatearen oinarriak ezartzen dituzten erresilientziadun ekosistemak izatea¹³. Beraz, ez da soilik kezkatzen ingurumena zaintzeaz, baizik eta, OPGren strategiaren ikuspegiarekin koherentzia gordez, erdigunea biztanleriaren ongizatean jartzen du.

Aipatutako strategiarekin duen beste osagai komun bat da ingurumen-sektoreak duen tradizioa industriaren edo hainbat erakunderen proposamenen ex ante ebaluazioan¹⁴. Hori da Ingurumen Ebaluazio Integratuaren kasua, proposamenen inpaktu potentziala ebaluatzen baitu (estrategiak, programak, planak edo proiektuak) osasunaren, ongizatearen eta bizi-kalitatea zehazten dituzten alderdi ekonomikoetan, ingurumenekoetan eta sozialetan¹⁵. Gainera, Euskadin indarrean dagoen ingurumen-politikak politika hori garatzeko, parte hartzeko eta zeharkakotasuna zuzentzeko elementuak ere baditu.

Aurreko guztiak kontuan izanik eta horren edukiak OMSekin (esaterako, ingurune fisikoa, mugikortasun aktiboa, garraioa edo enplegua) duen erlazio zuzena, egokia da ingurumen-sektoreko politiken bidez gobernuaren ekintzan osasuna integratzeko bideari ekitea.

Osasun Sailaren ustez, sektore sanitarioaz harago osasuna politiketan integratzeak esan nahi du osasunaren aldeko abokatutza egitea, bai informazioa bai ebidentzia zientifikoa eskaintzea eta, beharrezkoa denean, proposatutako politikez bestelako irtenbidea negoziatzea. Finlandian (bertan OPGk aurrerapen handia izan du) hainbat mekanismo horizontal ezarri ziren,

13 *El medioambiente en Europa. Estado y perspectiva 2015*. Informe de síntesis. Copenhague: Agencia Europea de Medio Ambiente, 2015

14 Patrick Harris, Francesca Viliani, Jeff Spickett. Assessing Health Impacts within Environmental Impact Assessments: An opportunity for public health globally which must not remain missed. *Int J Environ Res Public Health* 2015, 12, 1044-1049

15 Robert Quigley, Sue Cavanagh, Dominic Harrison, Lorraine Taylor, Melanie Pottle. *Clarifying approaches to: health needs assessment, health impact assessment, integrated impact assessment and race equality impact assessment*. London: NHS: Health Development Agency, 2005



ondo garatuak, hainbat arlo politikoren arteko komunikazioa errazteko, eta maila guztietako gobernantza-egituren barnean¹⁶.

OPGren estrategiak hainbat bideren bidez ezar daitezke eta ezarri behar dira, gobernuaren egiturak eta hori errazten duten prozesuak aprobetxatuta¹⁷. Nabarmendu beharra dago, esaterako, OMSren ikuspegia hainbat motatako inpaktu-ebaluaziotan (ingurumenekoa, generoarena, etab.) edo aurrez zeuden sektore arteko plataformetan txertatu izana. Halaber, egokia da ekintza-plan independenteak planteatzea baldin eta lehentasunak, ekintza zehatzak, konpromisoak eta aktoreak markatzen badituzte. Hori da txosten honetan aurkezten den osasunaren balorazio-ereduaren kasua, Osasun Lentearen Analisia (OLA).

Alabaina, herrialde edo eskualde bakoitzean estrategia garatzeko aplikatutako mekanismoak, lehentasunak edo ekintza-esparruak alde batera utzita, OPG zehaztu behar duten printzipioak hauek dira: legimititatea, kontuak ematea, gardentasuna eta informazio, partaidetza, jasangarritasun eta sektoreen zein gobernu-mailen arteko lankidetzarako sarbidea izatea¹⁸.

16 Jyrki Katainen. *Promoting health in all policies, an investment for future generations*. In: Ilona Kickbusch, John Kirton, James Orbinski eds. *Global health. Dedicated to the world's well-being*. Geneva: Global Health Programme, 2012.

17 Carey Gemma, Crammond Brad, KeastRoybn. *Creating change in government to address the social determinants of health: how can efforts be improved?: BMC Public Health 2014;14:1087*

18 KimmoLeppo, EevaOllila, Sebastián Peña, Matthias Wismar, Sarah Cook. *Health in All Policies. Seizing opportunities, implementing policies*. Ministry of Social Affairs and Health, Finland, 2013



4. OPGREN ALORREAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK METATU DUEN ESPERIENTZIA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2005ean OPGren alorreko lehen esperientzia esplizitua jarri zuen martxan. Esperientzia horretan Bilboko auzo bat berronertzeko proiektu batek Osasunean zuen Eragina Ebaluatu (OEE) zen¹⁹. Ordutik, hori aplikatzen trebezia eskuratzearaz gain eta hiriak berronertzeko proiektuetan²⁰ edo edateko uren fluorazioa mantentzeko komenigarritasunari buruz beste esperientzia batzuk gauzatzeaz gain²¹, erkidegoetako politiken OEEtarako baheketa-tresna bat baliozkotu da²² eta osasunerako eta hiri-garapen jasangarrirako gida bat egin da²³.

2012. urtean, garapen jasangarrira bideratuta zegoen sektoreen arteko plataforma baten bidez (EcoEuskadi, 2020), OPG ezartzen lan egin zen eta bertan OMSen eredia txertatu zen, euskal erkidegoko politiken jasangarritasunean sortzen den inpaktua ebaluatzeko gida batean²⁴.

Sektore sanitarioari dagokionez, OMSen ikuspegia eta arreta sanitarioaren alorreko programetan edo jarduketetan ekitatea txertatzen aurrerapenak egin dira. Hori da EAEko kolon eta ondesteko minbiziaren baheketa-programaren ekitatea berrikusteko zikloaren kasua²⁵. Arreta sanitarioaren arloan ekitatearen aldeko beste ekimenetako bat, batetik, Lehen Mailako Arre-

19 Bacigalupe Amaia, Esnaola Santiago, Calderón Carlos, Zuazagoitia Jon, Aldasoro Elena. Health impact assessment of an urban regeneration project: opportunities and challenges in the context of a Southern European city. *J Epidemiol Community Health* 2010;64:950-55

20 Serrano Elena, Larrañaga Maribel, Sanz Elvira, Baixas Maria Dolores, Basterretxea Mikel. Evaluación del impacto en salud de intervenciones de regeneración en la bahía de Pasaia: percepciones de la población afectada. *GacSanit* 2014

21 Delegación de Salud Pública de Bizkaia. *Memoria 2013*. <http://bit.ly/2pRSJ6h> [Acceso 15 05 2017]

22 Aldasoro Elena, Sanz Elvira, Bacigalupe Amaia, Esnaola Santiago, Calderón Carlos. Avanzando en la evaluación del impacto en la salud: análisis de las políticas públicas sectoriales del Gobierno Vasco como paso previo a la fase de cribado sistemático. *GacSanit* 2012;23(1):83-90

23 Udalsarea. Salud y desarrollo urbano sostenible. *Guía práctica para el análisis del efecto en la salud de las iniciativas locales de urbanismo*. Ithobe, 2014

24 Aldasoro Elena, Morteruel Maite. Introduction of Health and Equity Lens in a regional sectoral platform. Equity Action. Basque Country Case Study, 2013. <http://bit.ly/2pFDan5> [Acceso 15 05 2017]

25 Bacigalupe Amaia, Aldasoro Elena, Nuin Beatriz, Zuazagoitia Jon, Portillo Isabel. Introducción de la perspectiva de equidad en el programa de cribado de cáncer colorectal. Jornada de actualización de cáncer colorectal. Bilbao, 9 de marzo de 2012. Hemen eskuragarri : <http://bit.ly/13aJcvi> [Atzitze-eguna 2015-12 17]



tako II erako mellitus diabetesaren prebentzio sekundario eta tertziarioan egin den ekitate-auditoria izan da²⁶, eta, bestetik, ekitatearen alderdia txertatzea, bere adierazleekin, 2014. urtean Osasun Sailak Osakidetzarekin Kontratu Sanitarioak egiteko Gidalerro berrien Kalitatearen II. Eranskinean.

26 Bacigalupe Amaia, Esnaola Santiago, Fraile Iñaki, Ibarra Josu, Urraca Javier, Sánchez Sheila, Millán Eduardo. *Desigualdades sociales en la atención a la diabetes tipo 2 en la Comarca Araba*. Vitoria -Gasteiz: Departamento de Salud, Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria 2017.





5. HELBURUAK

I.

Biztanleriaren osasunean eta osasuneko ekitatean 2020 Ingurumenaren IV. Esparru Programak izan dezakeen inpaktua aztertzea Australia Hegoaldeko Osasun Lentearen Analisia egokituta lortutako metodologiarekin

II.

Gomendioak egitea biztanleen osasunean eta osasuneko ekitatean inpaktu positiboa maximiza daitezten eta 2020 Ingurumenaren IV. Esparru Programaren efektu negatiboak arindu edo deusezta daitezten

III.

Ingurumen sektorearen eta osasun sektorearen artean denboran zehar iraungo duen sektoreen arteko lanerako arloak identifikatzea

IV.

OPGren estrategia ezartzen aurrera egitea era efektiboan integratzeko osasunaren balorazioa Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoan



6. METODOLOGIA



Osasun Lentearen Analisiaren ekimena Osasun Sailak planteatutako OPGren estrategian ezartzen da. Estrategia hori, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiaren Koordinaziorako Zuzendaritzaren (Lehendakartzitza) partaidetza aktiboarekin, estrategiaren zuzendaritzaz arduratzen da. Estrategiaren agente zuzendari gisa, Osasun Sailak bere kargura ditu hainbat sektoretan (ingurumena, enplegua, etab.) osasuna kudeatzea, egokitzea, kontuak ematea eta osasunaren integrazioan aurrerapausoak ematea, baita funtzioak ere (lehenestea, balioestea, ebaluatzea, etab.).

OPGren strategiaren ekintza-plana egiteko OMEk OPGren esparru kontzeptualean ezinbestekotzat jotzen dituen 6 funtsezko osagaiari heldu zitzaion²⁷. Esparru horrek proposatzen du martxan jartzeko 1) beharra eta lehentasunak ezarri behar direla, 2) prozesua kokatu behar dela, 3) babeserako egiturak eta prozesuak identifikatu behar direla, 4) ebaluazioa eta konpromisoa erraztu behar dela, 5) monitorizazioa, ebaluazioa eta hedapena ziurtatu behar dela eta 6) gaitasunak eraiki behar direla.

Ekintza-plana egin aurretik **gubernantza-egiturak** ezarri dira, 2013-2020 aldirako Osasun Planean ezarriak, esaterako, Osasun Planaren Batzorde Zuzendaria eta OPGren Batzorde Teknikoa. Gainera, hori sustatzeko funtsezko pieza gisa, Lehendakartzaren Koordinaziorako Zuzendaritza inplikaturik zegoen, bai maila politikoan bai teknikoan. Era berean, Adituen Batzorde baten orientazioarekin, sektore arteko lantaldeak eratu ziren osasuneko, ingurumeneko, lurralde politikako eta gobernu-ekintzaren koordinaziorako pertsonalarekin.

OLA OPGren funtsezko esku-hartzea da, ebidentzian oinarritutako gomendioak eskaintzera bideratua erabakiak hartzean informa dezan eta osasuneko zein ongizateko irabaziak maximizatu ahal izateko edo estrategia, plan edo programa politikoen diseinutik eratorritako osasuneko efektu negatiboak eta desparekotasunak deuseztatzeko. Esku-hartze horren helburua da EJren ekintzaren helburuen eta politiken artean eta biztanleen osasunaren zein ongizatearen interakzio eta sinergia nabarmenenak identifikatzea.

Australia Hegoaldeko Osasun Sailak²⁸ gauzatutako esperientziaren metodologia egokitu bat da eta horren helburua da aldaketa sistematikoak txertatzea oinarri zientifikoa duten gomendioen bidez.

27 WHO. Health in All Policies Framework for Country Action. World Health Organization, 2014

28 Government of South Australia. The South Australia Approach to Health in All Policies: background and practical guide. Department of Health, 2011



OLAren helburu izango liratekeen politikak OPGren Batzorde Teknikoan hautatu ziren, beharrezko eta horiek lehenesteko prozesu baten ondoren. 2020 Ingurumenaren IV. Esparru Programa (IV IEP) eta 2014-2016 aldirako Enplegu Plana lehenengo bi postuetan sailkatu ziren.

OLA prozesua 5 fasetan garatu da:

1. OPGren Batzorde Teknikoan lortu zen akordioa edo **konpromisoa**. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzako hainbat Sailak eta Lehendakariaren Koordinaziorako Zuzendaritzako kideek osatzen dute.
2. **Ebidentzia zientifikoaren bilketa** osasuneko emaitzen eta aztertzen den politikaren hainbat arloren arteko erlazioari buruz, baita osasuneko efektua optimizatu dezaketen irtenbideei buruz ere (oinarri zientifikoarekin). Literatura berrikusi baino lehen, IV. IEP aztertutako, osasuneko eta ekitatean inpaktua izan dezaketen politikaren arloak identifikatzeko. Ondoren berrikuspen bibliografiko independenteak egin ziren, identifikatutako arlo bakoitzean, osasuneko eta arlo horren arteko erlazioari buruzko ezagutza txertatzeko helburuarekin. Horrenbestez, ebidentzia zientifiko bilatzeko, iradokizunak jarraitu ziren osasuneko inpaktua balioesteko esplizituri eginak²⁹.
3. **Gomendioak eta amaierako txostena egitea**: OMS-ek inpaktuaren balorazioa gauzatu zen eta hala politika osasungarriagoa egiteko gomendio adostuak nola IV. IEPren helburuak lortzen inplikaturako alderdi guztientzako txosten hau egin ziren. Inpaktuak identifikatzeko Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak baliozkotutako eta politika autonomikoetan aplikatzeko ad hoc diseinatutako tresna bat erabili zen³⁰.

Tresna hori egiteko OMEren Osasunaren mugatzaile Sozialen Batzordearen³¹ eredu oinarritu ziren; hala, mugatzaile horiek bi mailatan ezartzen ditu, ezkerretik hasi eta eskuintera. Ezkerrean osasuneko edo "kausen kausak" daude, eta horiek testuinguru politiko eta sozioekonomikoei dagozkienak dira. Maila egituratu honetan hartutako erabakiek, kultura eta balio nagusiez gain, hierarkia sozialak sortu edo mantentzen dituzte hainbat desparekotasun-ardatzen arabera. Elementu horiek mugatzaile bitarteko bidez jarduten dute. Mugatzaile horien barnean sartzen dira bizitza materialen baldintzak eta faktore individualak, esaterako, psikosozialak, biologikoak eta osasunarekin erlaxionatutako jarrerak. Geruzatze sozialak desberdintasunak zehazten ditu bitarteko faktoreekiko esposizioan eta zaugarritasunean eta, horrela, desparekotasunak sortzen dira osasuneko (2. irudia).

29 Mindell J, Boaz A, Joffe M, Curtis S, Birley M. Enhancing the evidence base for health impact assessment. *J Epidemiol Community Health* 2004;58:546-551


30 Aldasoro Elena, Bacigalupe Amaia, Calderón Carlos, Esnaola Santiago, Sanz Elvira. Herramienta de cribado para la Evaluación del Impacto en Salud de las políticas públicas sectoriales. Vitoria-Gasteiz: Departamento de Salud del Gobierno Vasco, 2014. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1CuclMm> [Atzitze-eguna 2015-12-17]

31 Solar Orielle, Irwin Alec. A conceptual framework for action on the social determinants of health. Social Determinants of Health Discussion Paper 2. Debates, Policy & Practice, case studies. WHO: Geneva 2010.



2. irudia.

Espainaren desberdintasun sozialek murrizteko batzordearen esparru kontzeptuala.



- 4 **Nabigazioa:** aztertutako politikaren arduradunei laguntzeko eta horiek gaitzeko helburuarekin, OPGren Batzorde Teknikoaren (zuzendariak osatua) azalpen eta debaterako saioez gain, Osasuneko mugatzaile sozialetarako eta OPGrako sarrera izeneko tailerra antolatuz, sektore arteko lantaldea osatu zuten Ingurumen eta Lurralde Politikoko zuzendua pertsoneri.

Gomendio multzoak erabakiak hartzeko prozesuan zehar gidatzeko, gomendioak eta azken txostena gobernuaren egitura batzuen artean banatu ziren SeTP (OPG) eta Lehendakariaren Koordinazio Bulegoa. Ingurumen eta Lurralde Politikako Departamentuari dagokionez, lanerako bide bat jarri zen abian, denboran zehar modu iraunkorren nola bideratu edo gomendioak nola landu ikasteko

- 5 **Ebaluazioa:** ebaluazio bat planteatzen da OLAREN arrakasta eta metodologia egokia izan den ezagutzeko. Horretarako prozesuaren, inpaktuaren eta emaitzen ebaluazioa txertatuko da^{32,33}. Metodo nagusiek tailerrak, inkestak eta elkarrizketak dituzte informazioa jasotzeko³⁴.

32 Taylor L, Gowman N, Quigley R. *Evaluating health impact assessment*. NHS: Health Development Agency, 2003

33 Quigley R J, Taylor L C. Evaluating health impact assessment. *Public Health* 2004; 118: 544–552

34 Government of South Australia. SA Health. Research and Evaluation of health in All Policies. Disponible en: <http://bit.ly/1IZoY5c> [Acceso 10-09-2015]



7. OSASUN-LENTEAREN ANALISIAREN PROZESU

7.1. Akordioa edo konpromisoa

2020 IV. IEP Osasun Lentearen Analisiaren lehen politika gisa hautatzea Osasun Sailak, Lehendakaritzaren Koordinaziorako Zuzendaritzaren laguntzarekin, 2014an beharrei eta lehentasunei buruzko ikerketaren emaitza izan zen. 2014. urtean, Eusko Jaurlaritzaren X. Legegintzaldian egindako politikak lehenesteko prozesu bat egin zen. Horiek 3. irudian ikus daitezke.

3. irudia.

Eusko Jaurlaritzaren plangintza-estrategia X. Legegintzaldian

INGURUMENENKO ESPARRU-PROGRAMA EUSKO JAURLARITZAKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN PARTE DA



Iturria: Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren Koordinaziorako Zuzendaritza



Intereseko irizpideak gobernuaren eta 2013-2020 Osasun Planaren helburuak betetzeko egiten den ekarpenaren arabera ezarri ziren eta prozesuan parte hartu zuten OPGren Batzorde Teknikoko eta Adituen Batzordeko kideek. Ikus, jarraian, ezarritako 4 irizpideak:

- 1 Planak xede duen gaiaren **garrantzia** euskal biztanleen ongizateari eta ekitateari egiten dion ekarpenari dagokionez,
- 2 **Egokia** da edo bat egiten du 2013-2020 Osasun Planaren lehentasunezko arloekin eta EJren plangintza estrategikoarekin
- 3 **Helburuko biztanleria azpimarragarria**³⁵ osasuneko desparekotasun sozialak murrizteko bizitzean zehar ikuspegitik. 1) jaio aurreko etapa, 2) bizitzaren lehenengo urteak, 3) lan-jardueraren adina eta familia eraikitzea eta 4) adinekoak
- 4 **Egingarritasuna** OLAtik sortzen diren gomendioak eskuratzeko: aldatua izateko gaitasuna duten planak³⁶, osasunaren sektorearekin aurretiazko lankidetzaz-ibilbidea duten edo sektore arteko lan-tradizioa duten sailak.

7.2. Ebidentzia-bilketa

2020 IV. IEPek eragingo liekeen osasuneko mugatzaile sozialen identifikazioa ikerketa berdinenaren hainbat osagaien edo arloen analisisien bidez egin zen.

7.2.1 2020 IV. IEP analisia

Eusko Jaurlaritzaren X. Legegintzaldiaren 14 plan estrategikoetako bat da, aldi horretako ekin-tza politikoa markatu zuen enpleguaren eta garapen jasangarriaren alderdiaren inguruan egin-na. Dokumentu estrategiko hau aurreko hiruren oinarrikoa da; horiek guztiek 1998tik Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politika definitu dute.

2013ko egoera-diagnostiko batean oinarrituta, 6 helburu estrategiko, 75 jarduketa eta fun-tsezko 6 proiektu definitu ziren. Bertan, ikuspegi estrategikoa, balioak definitzen dira, esparruaz, egiturez eta gobernantza-prozesuez eta jarraipenaz gain. Egindako analisiaren deskri-bapena aurkeztuko dizuegu 1. eranskinean.

7.2.2 Ebidentzia zientifikoaren berrikuspina eta sintesia

2020 IV. IEP analisiari esker, ziur asko OMSetan inpaktua izan dezaketen 11 arlo identifikatu ahal izan ziren. Arlo horiek bibliografiaren aldetik berrikusi ziren erantzuteko ez soilik osasunean izan zezaketen efektuari, baita esku-hartze efektiboeri ere, baldin eta esku-hartze horiek euskal biztanlerian politikaren efektu positiboa indartzeko izango lirakekeen etorkizuneko gomendioak orienta baditzakete.

Bi kasu hauek gehitu zitzaizkion literaturaren eta eskura dagoen dokumentazioaren berrikus-penari, beste testuinguru batzuetako OMSen ikuspegiarekin ingurumen-politikei buruzko eta

35 Bizitzan zehar osasuneko eta ongizateko efektu positibo eta negatiboak metatzen dira eta horiek direla eta osasuneko desparekotasunak betikotzen dira

36 Plana argitaratuta egon arren, ez du esan nahi OLAtik datozen ekarpenak egin ezin direnik, halere, OLAK gero eta gehiago aurreratzen duen heinean gero eta zailagoa izango da ekarpenak txertatzea



ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan osasuna txertatzeko bideei buruzko esperientziak ezagutzeko helburuarekin (4. irudia).

4. irudia.

Osasunaren mugatzaile sozialetan inpaktua izan dezaketen Ingurumenaren IV. Esparru Programaren arloak, bibliografiaren aldetik berrikusia

1. Ingurumen politika OMSen ikuspegitik	7. Elikadura zirkularra eta arduratsua
2. Osasuna txertatzea Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioan	8. Klima-aldaketa
3. Natura, biodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak	9. Gizartearen / herritarren / komunitatearen partaidetza
4. Naturguneak	10. Enplegua eta ekonomia berdea
5. Lurralde antolamendua eta hiri plangintza	11. Efizientzia energetikoa
6. Garraioa eta mugikortasuna	12. Ingurumen arriskuaren banaketa desberdina
	13. Ingurumen arrisku berriak eta osasunarekiko erlazioa

Identifikatutako arloetako berrikuspen bakoitzaren emaitzak era independentean daude jarraian dagoen testuan eta osasunarekiko erlazioari buruz aurkitutako ebidentzia laburbiltzen duen taula batean.



7.2.2.1. Ingurumen-politika mugatzaile sozialen eta osasuneko ekitatearen ikuspegitik

Jasangarritasunaren ikuspegi holistikoa

Jasangarritasuna gizartearen ongizatea denboran zehar mantentzeko edo hobetzeko berme gisa definitzen da. Ongizatea bizitzarako baldintza materialak izatea baino gehiago da, eta ekonomiaren, gizarteko eta ingurumeneko faktoreen konbinazio baten mende dago.

Ingurumen politikak

1. Europar Batasunaren 2014ko Ingurumen Politikak³⁷, Ingurumen (I) jasangarria eta osangarria oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat, ingurumenaren alderdiari soilik ekonomiaren alderdia txertatzen dio. Berreskurapenean baino gehiago prebentzioan jartzen du arreta, mugaz haraindiko lanean, efektua politika ekonomikoen ingurumenean txertatzean eta jasangarritasunerantz aurrera egiteko sinergiak maximizatzean. Hau guztia proposatzen da: pizgarriak eta disuasio-neurriak erabiltzea, sentsibilizazioa, berrikuntza, efizientzia areagotzea, biodibertsitatea berreskuratzea, hondakinak kudeatzea, ainerako, urarentzako, lurzoruentzako, itsas ingurunearentzako politikak eta basoen gobernantza (1).
2. Kanadako garapen jasangarriaren estrategiak (2010-2013) ingurumenaren gailentasuna mantentzen du alderdi sozial eta ekonomikoekiko. Bere funtsezko 3 elementuak dira ikuspegi integratua duela ingurumen-jasangarritasuna lortzeko, gobernuaren helburu nagusiekin estrategia uztartu egiten dela, neurri efektiboak, monitorizazioa eta kontuak ematea. 4 gai nagusitan zehazten da: klima-aldaketa eta aire garbia, kalitatezko ur eskuragarria, natura babestea eta arrasto digitala murriztea. Estrategia berritu zutenean (2013-16), alderdi sozial eta ekonomikoetan ingurumen-hobekuntzaren inpaktua txertatu zuten (2).
3. Osasunaren Mundu Erakundeak bere webgunean Osasun Publikoari, Ingurumeneko eta Gizarteko mugatzaileei (PHE) buruzko atal bat du (3). Bertan gai hauei buruzko argitalpenak daude: OMEk Osasun Publikoaren eta Ingurumenaren arloan duen Estrategia Globala, ingurumen-faktoreei egotz dakiekeen gaixotasun-karga (4), e-newsletter bat PHEren Sailak editatua (5). Gainera, 2015eko abenduaren Parisen Klima Aldaketaren Konferentzian lortutako akordioari buruzko informazioa dago.
4. Australia jasangarria: Australiako Gobernuaren txostena (2013), jasangarritasunaren ikuspegi holistikoa batetik egina, OMSak eta osasuneko desparekotasunak txertatuta. Ongizatea ekonomiaren, gizartearen eta ingurumeneko faktoreen konbinaziotzat jotzen du eta azaltzen du, OMSei buruzko gaur egungo egoerari buruzko deskribapen luze baten bidez, behar den ebidentzia-oinarria belaunaldi berrien etorkizunari buruzko balizko debateetarako. Osasuna gizakiaren eta gizartearen kapitalaren barnean dago eta ongizatea, osasunarekin erlacionatutako jarrerak eta desparekotasunak ikuspegi biomediko batetik baino ikuspegi sozialago batetik jorratzen dira. Inplementazioaren adibide on bat Western Australiako Corkburn hiriko jasangarritasunaren estrategia da, 2013 (6)
5. Malmö jasangarria: Michel Marmotek adierazten du jasangarritasunaren hiru dimentsioak: ekologikoa, ekonomikoa eta soziala, elkarrekiko mendeak direla. Horregatik, ez da zuzena garapen ekonomiko jasangarriaz hitz egitea, ekologikoak eta sozialak garapen ez-jasangarrirentzat egiten badute. Osasuneko garapena aurreko hiru alderdien jasangarritasunaren adierazle garrantzitsu bat da. Ekintzak proposatu ziren osasuneko desperakotasunak murrizteko 7 lan-arlotan (7).

37 EAEko Ingurumenaren IV. Esparru Programaren oinarria izan da, batez ere ingurumeneko elementuen kasuan



Jasangarritasunean alfabetatzea

Osasunean duen inpaktua

Egunero frutak eta berdurak gehiago jatea gaixotasun kardiobaskularrak izateko arrisku txikiagoarekin lotuta dago (2). Era berean, tentsio arterial altua duten pertsonak fruta eta ber-duren kontsumoa areagotzen badute, tentsio arteriala jaisten zaie. Gainera, fruta eta barazkiak jateak LDL kolesterola murrizten laguntzen du (3).

Zuntza kontsumitzea (fruta, berdura, zereal eta lekaleetan dago) onuragarria da bihotzeko gaixotasunak prebenitzeko. Zuntzak tentsio arterial altua, abdomeneko gantza edo triglizeri-doak murrizten laguntzen du. Zuntz askoko dietak 2 motako diabetes arrisku gutxiago izatea-rekin lotuta daude (3).

Bitaminak oso garrantzitsuak dira osasuneko arazoak prebenitzeko, esaterako, kataratak edo makulako endekapena (3).

Elikagaien barietate handi hori eskuratzeko ahalmena hainbat faktorek mugatzen dute, eta ho-rien artean, ondokoak aipa daitezke: pertsonen gizarte- eta ekonomia-baldintzak eta auzoetan elikagaiak arrazoizko prezioan lortzeko saltokiak izatea (4) (5).

Era berean, dieta osatzen duten elikagaien aukeraketa indibiduala pertsonen elikadura-ezagu-tzen, faktore kultural eta sozialen edo elikadura industriak egiten dituen produktu batzuen publizitate intentsiboaren mende dago (5).

Elikagaien tokiko ekoizpena

Elikagaien tokiko ekoizpenak murriztu egiten ditu isuriengatiko eta garraioarekin lotutako ba-liabideen kontsumoengatiko ingurumen-inpaktuak, baliabide naturalak eta ingurunea manten-tzen eta kontserbatzen laguntzen du elikagai freskoen eskuragarritasuna areagotzen du eta elikagaien nutrizio-educia mantentzen laguntzen du. Garraio-kostuak murrizteak eta balio-ka-tea murrizteak nekazaritza-ekoizpenean tokiko enplegu-aukerak areagotzea ekartzen dute; horrela, diru-sarrerak sor daitezke (5) (6).

Pertsonen lankidetzaren bidez, fruta eta berdura freskoak lorategi komunitate-lorategietan, hiri barneko lur-partzeletan edo berdegune hurbiletan ekoizteak osasun fisikoa eta psikolo-gikoa hobetzen du jarduera fisikoa areagotu egiten baita (6). Era berean, pertsonen osasun mentalak eta autoestimua hobetzen duten komunikazioa eta erlazio sozialak areagotzen lagun-tzen du (5) (7) (8).

Tokiko ekoizpeneko elikagaiak auzoko txikizkako saltokien edo tokiko ekoizleen merkatuen bidez saltzen direnean, hirietan jarduera guneak eta pertsonak biltzeko guneak sortzen lagun-tzen da. Toki horiek interakziorako eta inklusio sozialerako toki gisa eratzten dira (9).

«Zero» hondakin elikadura zirkularrean eta konpromiso soziala

Elikagaiak galtzea eta alferrik galtzea adierazten denean, gizakien kontsumorako bideratzen diren landareen eta animalien zati jangarriak buruzko, baina azkenean jaten ez diren horiei buruzko aipamena da. Elikagaiak normalean produktu horien balio-katean ekoiztu, biltegitatu,



prozesatu, banatu eta merkaturatzeko etapetan galtzen dira. Europan, kontsumoaren etapan elikagaien %52 alferrik galtzen dira (10).

Elikagaiak galtzeak eta alferrik galtzeak ondorio larriak ditu ekonomian, ingurumenean eta baliabide naturaletarako zein pobreziarako. Horrela, nekazaritzako inbertsioak alferrik galtzen dira; beharrezkoak ez diren berotegi-efektuko gasen isuriak sortzen dira; ura, energia, ongarriak eta lurra ez oso era eraginkorrean erabiltzen dira, eta nekazarien diru-sarrerak murrizten dira eta kontsumitzaileek beren gastuak areagotu behar dituzte kalorien gutxieneko ahorakina lortzeko.

Estatu Batuak eta Erresuma Batuak bezalako herrialdeetan, batez beste lau kideko familia batek urtero 1.600 eta 1.100 dolar xahutzen ditu, hurrenez hurren. Egoera sozioekonomikoa kontuan hartzen bada, diru-sarrera gutxieneko taldeek elikagai gutxiago xahutzen dituzte diru-sarrera handiagoak dituztenek baino pisuaren, kalorien eta gastuaren terminoetan.

Nekazaritako elikagaien enpresa-talde jakin batzuek sozialki arduratsuak diren kolektiboek elikagai-produktuak emateko programak ezarri dituzte, emandako produktuen elikagai-produktuen segurtasuna zaintzen duten protokoloetan oinarrituta.

Erreferentzia bibliografikoak

- 1 Osasun Saila. Elikadura osasungarria. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1gqk2Q5>. Atzitze-eguna: 2015/09/16.
- 2 Health Professionals Follow-up Study. <http://bit.ly/1YblUOM>. Atzitze-eguna: 2017/05/02.
- 3 UCLA Health impact assessment clearinghouse. Learning and information center. Sectors and Causal pathways. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1FfoXPQ>. Atzitze-eguna: 2015/09/16.
- 4 New Zealand Network Against Food Poverty. Hidden Hunger – Food and Low Income in New Zealand. In: NSW Department of Health. Food Security Options Paper: A Planning Framework and Menu of Options for Policy and Practice Interventions. Sydney: NSW Department of Health; 2003. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1Lgov4L>. Atzitze-eguna: 2015/09/16.
- 5 Udalsarea XXI. Osasuna eta hiri-garapen jasangarria. Tokiko hirigintzako ekimenek osasunean zer eragin duten aztertzeko gida praktikoa. 2014ko apirila. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1UUcGSL>. Atzitze-eguna: 2017/05/02.
- 6 Lock, K; van Veenhuizen, R. Balancing the Positive and Negative Health Impacts. Urban Agriculture Magazine. 2001 (1) ; 3. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1KpAwUQ>. Atzitze-eguna: 2015/09/16.
- 7 Thompson S, Corkery L, Judd B. The Role of Community Gardens in Sustaining Healthy Communities. Sydney: Faculty of the Built Environment, UNSW; 2007. ISBN 978-0-646-48194-4. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1KfGy96>. Atzitze-eguna: 2015/09/16.
- 8 Western Sydney Regional Organization of Councils Ltd (WSROC) and AnniGethin (AGA Consulting P/L). Greater Western Sydney Urban Development Health Impact Assessment: Final Report. Western Sydney Regional Organization of Councils Ltd; 2007. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1LxEsiT>. Atzitze-eguna: 2015/09/16.
- 9 Watson, S; Studdert, D. Markets as Sites for Social Interaction (including market planning suggestions). Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1KmAlzX>. Atzitze-eguna: 2017/05/02.
- 10 Poverty Reduction and Equity Department at the World Bank. Food Price Watch. 2014, February, (16). Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/2psEHv3>. Atzitze-eguna: 2017/05/02.



7.2.2.8. Klima-aldaketa

Adostasun zientifiko handia dago adierazteko giza ekintzaren ondoriozko CO2 eta berotegi-efektuko bestelako gasen kontzentrazioa atmosferan handitzeak lurraren gainazalaren beroketa areagotu duela, baita beste klima-aldaketa batzuen ere, eta etorkizunean jarraituko dutela aurreikusten da. Beroketa global horrek hau guztia dakar: glaziarren desizoztea, itsas maila igotzea, euri-erregimenetako aldaketa eta muturreko fenomeno meteorologikoen intentsitatea eta maiztasuna areagotzea.

Osasunean duen inpaktua

Osasunean klima-aldaketak izango dituen efektuak handiak izango dira eta, batez ere, negatiboak izango dira, zeren aldaketak osasuneko mugatzaile garrantzitsuetan eragiten baitu. Kalkulu zehatzak egitea zaila den arren, OMEK, bere ondorio batzuetan bakarrik oinarrituta, kalkulatu zuen 2030etik 2050era bitarteko aldi urtero 205.000. klima-aldaketak sortutako heriotzak izango direla (1).

Europako herrien kasuan, esaterako Euskadin, klima-aldaketak osasunean dituen efektuak mugatzaile hauen aldakuntzarenatik sor daitezke (2,3,4):

1. Muturreko tenperaturak igotzea: Aurreikuspenek adierazten dute muturreko tenperaturen intentsitatea eta maiztasuna igoko dela, eta hori udako lehenengo hilabeteetan nabaria goa izango da (5). Erlazio bat dago muturreko tenperaturen eta gaixotasun kardiobaskular, arnasketako gaixotasun eta gaixotasun zerebrobaskularrengatik heriotza-tasaren artean. Hori frogatu zuen Europan 2003an izan zen bero-boladak sortutako gehiegizko heriotza-tasak (6). Era berean, tenperaturek ingurumen-kutsadura areagotzen dute eta horrek gaixotasun kardiobaskularrak eta arnasketako gaixotasunak areagotzen ditu. Azkenik, tenperaturaren igoerak zein CO2 mailen igoerak polenaren eta beste alergenoren batzuen kontzentrazioa areagotu dezakete eta horrek asma eta beste gaixotasun alergiko batzuk areagotu ditzake (5).
2. Itsasoaren maila eta publiositatea igotzea. Klima-aldaketa erlazionatuta dago bai ozeanoaren mailaren igoerarekin bai muturreko prozesu atmosferikoen igoerarekin, esaterako uholde-urak, eta horiek uholde larriak sortuko dituzte (5). Nahiz eta zaila den balizko efektuak ezartzea euskal gizartean, fenomeno horiek gunerak batzuek urez estali ditzakete edo kostako akuiferoak gazitu daitezke eta pertsonak derrigorrean desplazatu beharko dute, eta horrek osasun mentala txartu dezake, gaixotasun infekziosoak areagotu ditzake, baita istripuak eta itotzeak ere.
3. Aldaketak infekzio-bektoreen banaketan. Baldintza klimatikoetako aldaketek gaixotasun larrien bektore transmititzaileen banaketaren aldaketa geografikoa sor dezakete. Nahiz eta zaila den hain konplexuak diren prozesu ekologikoetan aurreikuspenak egitea, adierazi da artropodoek eta karraskariak transmititutako infekzio- eta parasito-gaixotasunak, esaterako mendebaldeko Niloko entzefalitisa edo dengea, areagotu egin daitezke Espainian (7). Ondorioz, horrek osasunean zuzenean eta zeharka eragingo du, esaterako, sektore turistikoa izango duen inpaktuaren bidez.

Klima-aldaketak osasunean dituen inpaktuak era desberdinean bana daitezke talde sozial desberdinen artean. Horrela, badirudi horiek handiagoak izan daitezkeela adinekoetan, klase ahulenetan, haurretan eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonetan.



Erreferentzia bibliografikoak

1. Osasunaren Mundu Erakundea. Cambio climático y salud. Ohar deskribatzailea. 266. zk. 2014ko abuztua.
2. Eusko Jaurlaritza. Klima-aldaketa: inpaktua eta egokitzea Euskal Autonomia Erkidegoan. 2011
3. Eusko Jaurlaritza. 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia. Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak. 2015eko urtarrila.
4. World Health Organization Global health risks: mortality and burden of disease attributable to selected major risks. World Health Organization, Geneva, 2009.
5. Ballester F. Diaz J. Moreno J. Cambio climático y salud pública: escenarios después de la entrada en vigor del Protocolo de Kioto. Gaceta Sanitaria 2006;20:160-74.
6. Robine JM et al. Death toll exceeded 70,000 in Europe during the summer of 2003. Les Comptes Rendus/Série Biologies, 2008, 331:171-78.
7. López-Vélez R. Cambio climático en España y riesgo por enfermedades infecciosas y parasitarias transmitidas por artrópodos y roedores. Revista Española de Salud Pública. 2005; 79: 177-190



7.2.2.9. Gizarte/Herritar/Komunitatearen partaidetza

Komunitatearen partaidetza da, esku-hartze bateko (proiektuak, programa, plana, politika) erabakitze-prozesuan inplikatzeko esku-hartze horrek era positiboan edo negatiboan eragiten dien pertsonak eta interes-taldeak (1, 2,3). Partaidetza-mailak partaidetza pasibotik (informazioa jasotzea) erabakiak batera hartzea eta kolektibo interesdunen arteko lankidetzara artekoak izan daiteke. Era berean, bere dimentsioa maila indibidual batetik maila kolektiboago batera arte hedatzen da, eta diseinu, plangintza, garapen eta politika zein zerbitzuen hobekuntzan inplikatzera hel daiteke. Partaidetza-maila eta -dimentsio bakoitzaren garrantzia partaidetza-prozesu bakoitzaren mendekoa izango da.

EAEko egoera

Osasunaren eta ingurumenaren kasuan, komunitateak parte hartzearen alde egiten duten hainbat tresna daude EAEn (legeak, planak, Liburu Zuria, tokiko ekimenak). Horien artean daude Administrazio Publikoaren Legearen Proiektua (4), Osasun Plana (5), Ingurumen Esparruaren Programa (6). Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria (2) eta Agenda 21en barneko tokiko ekimenak (7).

Osasunean duen inpaktua

Osasunaren alorrean, komunitatearen partaidetza duela 40 urtetik eztabaidarako (8) eta deklarazio adostuetarako gai bat da (9, 10). Komunitatearen partaidetzak osasunean dituen efektuak zorrotzasunez ebaluatzen dituzten dokumentuak gutxi dira, baina dokumentu horiek adierazten dute partaidetza goraka ari den osasun publikoaren estrategia bideragarri bat dela (8, 11, 12).

Komunitate osasungarri eta kohesionatuen oinarritzko printzipioetako bat hau da: erabaki-hartzean parte hartzea, politiken plangintzan eta garapenean eragiteko helburuarekin. Gizarte-kohesioa gizarte arloko diskriminazio, desberdintasun, bazterkeria eta eskusio moduak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko behar kolektiboarekin lotuta dago. Baliabideak eskuratzeko aukera-berdintasuna sustatuz, gizarte-elkarrekintza eta pertsonen arteko loturak bultzatzen dituzten ingurunez hornituz eta pertsonengan tokiarekiko lotura eta bertakoa izatearen sentimendua bultzatuz, gizarte-kohesioa eta desberdintasunen murrizketa bultzatzen dira, eta horren ondorioz, herritarren osasuna hobetzea lortzen da (13).

Komunitatearen partaidetza balio sozialetan oinarrituta hartzen da kontuan, esaterako, ingurumen-justizia, ingurumen-demokrazia eta osasuneko berdintasuna bezalako balio sozialetan oinarrituta (10, 14, 15, 16). Partaidetza areagotzeak eta tokiko prozesuetan ahalduntzeak eta politikak definitzeak osasunaren mugatzaile sozialei heltzen eta osasuneko kezkak murrizten lagun dezake. Alabaina, partaidetza ez da nahikoa prozesuetan ez bada komunitateen ahalduntzea sustatzeko lan egiten (11).

Erreferentzia bibliografikoak

1. André P, Enserink B, Connor D, Croal P. Public participation: international best practice principles. IAIA Special Publication Series 2006;(4):1-3
2. Eusko Jaurlaritza. Euskadiko demokrazia-ri eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria [Web]. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2014 Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1Qex27H> . Atzitze-eguna: 2017-05-02
3. World Health Organization Health in all Policies: Helsinki Statement. Framework for Country Action. 2014
4. Eusko Legebiltzarra. Euskal Administrazio Publikoaren Lege aurreproiektua. Vito-



- ria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 2014. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1NtJuBe>. Atzitze-eguna: 2015-02-06
5. Osasun Saila. Euskadiko osasun-politikak: 2013-2020. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Nagusia; 2014.
 6. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. EAEko Ingurumeneko Esparru Programa 2020. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2014
 7. Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Parte hartu 21: EAEko herritarrek Tokiko Agenda 21ean parte hartzeko gakoak. Bilbo: Ihobe, 2010. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1Nazyre>. Atzitze-eguna: 2017-05-02
 8. Boivin A, Lehoux P, Burgers J, Grol R. What are the key ingredients for effective public involvement in health care improvement and policy decisions? A randomized trial process evaluation. *Millbank Q* 2014 Jun;92(2):319-50 PM:24890250
 9. Venne M. Les citoyens, alliés du système de santé. *Global Health Promotion* 2014 Mar;21(1 Suppl):50-3 PM:24737815
 10. Barten F, Mitlin D, Mulholland C, Hardoy A, Stern R. Integrated approaches to address the social determinants of health for reducing health inequity. *J Urban Health* 2007 May;84(3 Suppl):i164-i173 PM:17393340
 11. Wallerstein N. What is the evidence on effectiveness of empowerment to improve health?. Copenhagen: Who Regional Office for Europe; 2006. Health Evidence Network Report Disponible en: <http://bit.ly/1Le8UCP>. Atzitze-eguna: 2015-02-05
 12. Sepucha KR, Borkhoff CM, Lally J, Levin CA, Matlock DD, Ng CJ, Ropka ME, Stacey D, Joseph-Williams N, Wills CE, Thomson R. Establishing the effectiveness of patient decision aids: key constructs and measurement instruments. *BMC Medical Informatics & Decision Making* 2013;13 Suppl 2:S12 PM:24625035
 13. Udalsarea 21. Osasuna eta hiri-garapen jasangarria Tokiko hirigintzako ekimenek osasunean zer eragin duten aztertzeo gida praktikoa. Bilbo: Ihobe, 2014. Udalsarea 21en 17. lan-koadernoak. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1iLDUPv>. Atzitze-eguna: 2017/05/02
 14. Sexton K. Evolution of public participation in the assessment and management of environmental health risks: a brief history of developments in the United States. *J Public Health Res* 2013 Sep 2;2(2):e18 PM:25170489
 15. Masuda JR, Poland B, Baxter J. Reaching for environmental health justice: Canadian experiences for a comprehensive research, policy and advocacy agenda in health promotion. *Health PromotInt* 2010 Dec;25(4):453-63 PM:20615911
 16. Pohjola MV, Tuomisto JT. Openness in participation, assessment, and policy making upon issues of environment and environmental health: a review of literature and recent project results. *Environ Health* 2011;10:58 PM:21679456



7.2.2.10. Enplegua eta ekonomia berdea

Karbono-isuri gutxiko ekonomia baterako, lehiakor baterako eta baliabideetan efizienteranzko trantsizioak negozio-prozesuak eta gaitasun erlazionatuak eraldatzea eskatzen du, eta horrek enplegu berdeak izenekoak igotzea ekartzen du (1). Termino orokorrak sektore desberdinetako lanpostuen gama handi bat hartzen du, lan-baldintza eta -prozesu desberdinak dituzte eta horietan askotariko eskulan intentsiboak esku hartzen du (2). Komunean dute ingurumenaren mende egotea edo ekonomia berdeago bateranzko trantsizioan prozesuan sortu, eratu edo birdefinitzea (gaitasun, lan-metodo, profil, eta abarren terminoetan) (1). Enplegu berde horiek ez dituzte soilik zuzeneko lan ekologikoak hartzen, horniduraren katera ere iristen baitira (2); hala, zuzeneko enpleguak, zeharkakoak eta diru-sarrerek eragindakoak desberdinduz (2).

Osasunean duen inpaktua

Ekonomia berderanzko trantsizio-prozesuak eta, beraz, enplegu berdeen kopuruaren hazkundea osasunean izan dezakeen inpaktua konplexua da eta hainbat maila hartzen ditu. Hori ulertzeko garrantzitsua da kontuan izatea lan-erlazioak, enplegu-baldintzak eta lan-baldintzak, erlazionatuta egon arren, desberdinak diren kontzeptuak direla (3).

Ekonomia berdea enplegua sortzeko aukera bat da bai termino orokorretan bai kalitate-enpleguaren terminoetan (4). Langabeziaren prebentzioak osasunean efektu onuragarria sortzen du zeren ziurra baita langabeek eta beren familiek heriotza goiztiarra izateko arrisku askoz handiagoa dutela (5). Halere, kontuan izan behar da lanaren izaerak osasuneko desparekotasunei eragiten diela, zeren lan-baldintzen ondorio txarrak gizarte-egoera ahuleko talde sozialetan biltzen baitira. Horrela, lanaren alderdien inguruan, frogatuta dago osasuna babestu edo kalte-tzen dutela eta gauza jakina da ondoen kalifikatu eta ordaindutako lana osasuneko emaitza hobeeekin lotzen dela (6).

Halere, ekonomia berderanzko trantsizioak efektu negatiboak ekar ditzake biztanleriaren osasunarentzat. Lehenik, askotarikoak badira ere, enplegu berdeek lanean segurtasuneko eta osasuneko baldintzetan aldaketak parteka ditzakete eta osasunean inpaktu negatiboa izan. Lan-prozesuak deszentralizatzeko joerak eta lana zabalki banatzeak (2), laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak aplikatzea eta zaintzea zaildu dezake.

Halaber, enplegu berdearekin lan-arrisku berriak etorriko dira, eta horiei litekeena da erantzun egokia ez ematea (2). Era berean, lan berdera iragateak eskulana gehiago polarizatzea ekar dezake (kalifikazioaren muturretara). Azkenik, helburu berdeen eta laneko segurtasun- zein osasun-helburuen artean gatazkak sor daitezke, ekintza ekologikoei ekiteagatik sortzen den behin-behineko presioa aurrenekoak lehenetsi ditzake eta horrek laneko segurtasunari eta osasunari eskaintako arreta murriztea ekar dezake (2).

Bigarrenik, ekonomia berderanzko iragateak eta, beraz, enplegu tradizionalak enplegu berdeetara aldatzeak enplegu-baldintzak aldatzea ekar dezake. Aldaketa horrek baldintza horiek txartzea ekar dezake, esaterako, behin-behinekotasuna, soldatak, etab., eta horiek osasunean inpaktu negatiboa dute.



Erreferentzia bibliografikoak

1. Europako Batzordea. Commission Staff Working Document. Exploiting the employment potential of green growth. Accompanying the document "Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions. SWD (2012) 92 final, Estrasburgo 2012. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/2pnFXML> Atzitze-eguna: 2015-09-16
2. Laneko segurtasunerako eta osasunerako Europako agentzia. Empleos verdes y seguridad y salud en el trabajo. 2013
3. Joan Benach, Carles Muntaner, Vilma Santana. Employment Conditions and Health Inequalities. Employment Conditions Knowledge Network (EMCONET). Final Report, 20 September 2007
4. Mercados y empleos verdes 2020 en Euskadi. El papel de la industria vasca hacia una economía sostenible. Ihobe, 2011.
5. Richard Wilkinson y Michael Marmot eds. Los determinantes sociales de la salud Los hechos probados. Osasunaren Munduko Erakundea, 2006.
6. UCL Institute for Health Equity. Local action on health inequalities. Promoting good quality jobs to reduce health inequalities. Public Health England, 2015.



7.2.2.11. Efizientzia energetikoa

Pobrezia energetikoa etxe bat bere oinarrizko beharretarako, esaterako, etxebizitza osasunerako klimatizazio-baldintza egokietan mantentzea (neguan 18-20° C eta udan 25° C), energia-zerbitzuen gutxieneko kantitatea asetzeko gai ez izatea da. Pobrezia energetikoa etxean gertatzen diren hiru faktore konbinatuta sortzen dela deskribatu da: familiartekoen diru-sarrera baxuak, energiaren prezioak eta etxebizitzaren eta horien ekipamenduen efizientzia energetiko baxua^{40,6}

EAEko egoera

2013ko urrian, Euskadi Garatzeko GKEren Koordinakundeak salatu zuen ia 90.000 pertsonak, euskal biztanleriaren % 4, pobrezia energetikoa pairatzen zutela eta horrek beren etxeetan oinarrizko premiak (elikadura, berokuntza eta higiena) asetzeko eragoziko lieke. Gipuzkoako ikerketa espezifiko batek kalkulatu zuen, tenperatura egokia mantentzeko ezintasuna, energiaren ordainagiriak ordaintzen atzeratzea eta etxean hezetasuna izatea oinarri hartuta, pobrezia energetikoa % 13koa izan zela Gipuzkoako biztanlerian⁴¹.

Pobrezia energetikoak osasunean duen eragina

Osasuneko arazoak dira pobrezia energetikoaren ondorio nabarmenenak. Pobrezia horrek gehiago eragiten die gizarte-egoera ahulenean dauden talde sozialei, haurrei eta gazteei, helduei edo gaixotasun kroniko jakinak dituzten pertsoneri. Argitaratutako ikerketa eta berri-kuspenetatik eratorritako ondorio nagusiak (1, 2, 3, 4, 5) hauek dira:

- Etxean tenperatura hotzetan luzaroan egoteak estres termikoko egoerak sor ditzake eta ez dio soilik eragiten sistema immuneari (katarroak eta gripea izateko arrisku handiagoa), baita sistema kardiobaskularrari ere, eta, hala, gaixotasun kardiobaskularrak eta infartuak izateko probabilitatea areagotzen da.
- Urteko hilabete hotzetan tenperatura egokiak ez dituen etxe batean bizitzeak gaixotasun osteoartikularrak okertu ditzake –esaterako, artritis– edo erreumatologikoak.
- Etxe hotzetan bizitzeak hezetasun-arazoak (lizuna, usain txarra) edo akaroak ekar ditzake, eta horrek arnasketa-gaixotasun –esaterako, asma– edo gaixotasun alergiko jakin batzuk larriagotu ditzakete
- Etxebizitza heze eta hotzetan bizitzeak pertsonen osasun mentalean ere eragin dezake, bereziki, antsietatea, depresioa edo isolamendu soziala pairatzeari dagokionez.
- Halaber, egiaztatu da etxean tenperatura hotzak era etengabeen pairatzen dituzten pertsonen zerbitzu medikoak erabiltzeko probabilitate askoz handiagoa dutela eta, bereziki, haurren kasuan, pobrezia energetikoa pairatzen duten etxeetan bizitzeak anbulatorio edo ospitale batera joateko arriskua % 30 igotzen du.

Gaixotasun jakin batzuk larriagotzeaz gain, egiaztatu da pobrezia energetikoa heriotza-tasa handitzearekin ere lotzen dela baldintza termino desegokiengatik, hotz edo bero gehiegi izateagatik. Ildo horri jarraikiz, egiaztatu da etxea tenperatura baxuan mantentzea neguan

40 Ingurumen Zientzien Elkarteko webgunean eskainitako informazioa. Hemen eskuragarri: <http://www.cienciasambientales.org.es/index.php/cambio-climatico-y-sector-energetico/pobrezia-energetica.html>

41 Ebazpearen asko txosten honetan jasotakoak daude: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako pobrezia energetikoa, 2014



gehiegizko heriotza-tasarekin lotua dagoela eta neguko gehiegizko heriotza-tasaren % 10 inguru pobrezia energetikoarengatik izan daitekeela. Espainiako testuinguruko ikerketa batek kalkulatu du pobrezia energetikoa izan daitekeela urtean gutxienez 2.300 heriotza goiztiar izatearen zergatia (6).

Osasuneko desparekotasunetan duen inpaktuaren ikuspuntutik, agerikoa da gradiente argia izango dela pobrezia energetikoarekiko esposizioan, posizio ekonomikoaren hainbat aldagairengatik. Marmotek (1) agerian jarri zuen etxeko errentaren kintila txikiagoa den heinean, pobrezia energetikoa handitu egiten zela gradualki, muturreko kintilen arteko distantzia mutur aberatsenean % 0,3koa eta pobreenean % 33koa izateraino.

Erreferentzia bibliografikoak

1. Marmot review team. The Health Impacts of Cold Homes and Fuel Poverty. London: Friends of the Earth/ Marmot, 2011. Review Team. 57
2. Liddell C, Morris C Fuel poverty and human health: A review of recent evidence, Energy Policy 2010;38: 2987–2997.
3. Department of Trade and Industry. UK Fuel Poverty Strategy. London: HMSO, 2001
4. Evans J. et al. An epidemiological study of the relative importance of damp housing in relation to adult health: J Epidemiol Community Health 2010; 54: 677–686.
5. Hills J. Getting the measure of fuel poverty. Final Report of the Fuel Poverty Review. CASE report 72.- London: Centre for Analysis of Social Exclusion. London School of Economic, 2003.
6. Tirado S. Pobreza Energética en España. Potencial de Generación de empleo derivado de la rehabilitación energética de viviendas. Madril: Asociación de Ciencias Ambientales, 2012.



7.2.2.12. Desparekotasunak ingurumen-arriskuaren banaketan

Ingurumen-osasuneko desparekotasuna biztanleria-talde desberdinen arteko desberdintasun sistematikoen emaitza gisa definitzen da, mugatzaile sozialen eta ingurumen-mugatzaileen banaketa desberdina dela eta. Osasunean efektu esanguratsua duenez, ekidin edo, behintzat, murriztu daitezkeen heinean ez dira justuak. Kontzeptu hori estuki lotuta da ingurumen-justizia-rekin (1). Kontzeptu horrek adierazten du talde sozial bat berak ere ez dituela era desproporzionatuan pairatu behar industria, udalerriko edo merkataritzako eragiketetatik sortzen diren ingurumenaren ondorio negatiboen karga.

EAEko egoera

EAE ingurumen-datuak monitorizatu, erregistratu eta horiei jarraipena egiteko sistema sendotu bat dago, baita biztanleriaren osasuneko datu eta datu sozioekonomikoetarako ere; baina, nahiz eta ikerketa baliozko bat izan (3), beharrezkoa da ezagutza handiagoa izatea ekitateari buruz osasuneko gizarte- eta ingurumen-mugatzaileak banatzen direnean. Horretarako, metodologia egokiei heldu behar zaie ingurumen-zaintzaren eta datu sozioekonomikoen informazioa biztanleriaren osasun-egoerarekin lotzeko.

Osasunean duen inpaktua


Osasunaren Mundu Erakundeak 2010ean ezarri zuen ingurumeneko desparekotasunak direla osasuneko desparekotasunak areagotzeko arrazoia. Azken horien arazo gorakorrari heltzeko, esparru-eredu bat proposatu zuen, beste sektore batzuekin indarrak batzean oinarritua (7. irudia) (4). Ereduak iradokitzen du mugatzaile sozialek ingurumen-arriskuekiko esposizio-mailan eragiten dutela. Era berean, uste du pertsonen ahultasunean bitartekotza egiten dutela, hau da, hezkuntzak edo osasuneko jarrerak ingurumen-arriskuarekiko esposizio-mailan eragin dezakete; izan ere, arrisku hori gizarte-egoera ahulenerako biztanleria-taldeek gehiago paira dezakete eta, horrela, osasunean efektu gogorragoak dituzte. Azkenik onartzen du, osasunari eragiten dioten mugatzaile sozialei buruzko behar beste ebidentzia badago ere, ez dagoela argi zein den horiek duten pisua ingurumen-arriskuarekiko esposizioan. Hortaz, ingurumeneko desparekotasunen ezagutzan sakontzeko, ikertu egin behar dira esposizioarekiko desberdintasunak eta ahultasuneko desberdintasunak (5).

2014an osasuneko ingurumen-desparekotasunaren kausei buruz eta horren ondorioei buruz egindako berrikuspen batek (6) berretsi du ikerketa gehienetan, estatus sozioekonomiko (ESE) baxuagoa duten pertsonak ingurune fisikoak eta sozialak sortzen duen ingurumen-arrisku gama handiagoarekiko esposizio handiago dutela. Ingurumen-osasuneko desparekotasunak deskribatzeko eta azaltzeko, ikerketa hauetan ingurumen-adierazleez gain (aire-kutsatzaileak, zarata, industria kutsatzaileekiko gertutasuna, lurzoru kutsatuak, etab.), adierazle psikosozialak (esaterako pilaketa), bazterketa soziala, beldurra eta segurtasunik eza eta gabezia ekonomikoa ere kontuan hartzen ziren.



7. irudia.

Desparekotasun sozialen eta ingurumen-arriskuen esparru-eredua. WHO, 2010



Bereziki ahulak diren taldeei dagokienez, ebidentziak adierazten du Europan estatus sozioekonomiko (ESE) maila baxuko haurrek aireko poluzio, zarata, berun eta etxebizitzaren baldintza desegokiekiko esposizio handiagoa pairatzen dutela eta ariketa fisikoa egiteko aukera gutxiago dituztela (7).

Kalkulatzen da Europan gaixotasunaren karga globalaren % 25 inguru, % 33 haurretan, ingurumen-faktoreek eragiten dutela (8) eta airearen poluzioa, zirkulazioaren zarata, hornidura-uren eta hondakin-uren kudeaketa direla inplikaturik dauden faktoreak gehienbat (10). Gure ingurunean, uraren kudeaketa egokiak, bere kalitateak eta kantitateak, oro har, kalitate egokiko bihurtzen dute. Ezin izan dira bistatik galdu, halere, gure jardueretatik (erauzketa teknika berria, material berriak fabrikatzea, etab.) erator daitezkeen arriskuak. Bestetik, hondakinen kudeaketa eta lurzoru kutsatuak eta horien inplikazioak presentzia eta ikusgarritasuna ari dira irabazten, eta gure biztanleriaren arretagune dira.

Airearen kutsadurarekiko esposizioa eta osasuneko desparekotasunekin duen interakzioa gai konplexua da, eta hori ebaluatzeko ez dago eredu bakarra eta interrelazio horretan jarduten duten hainbat mekanismo iradokitzen dira; etxebizitzaren merkatuak lurzoruaren plangintzan eta erabileretan sor dezakeen joerak azal dezake, hein batean, zergatik ESE ahulenerako biztanleriak maiz airearen kutsadurarekiko esposizio handiagoa izaten duten (10).

ESE ahulenerako biztanleriak osasuneko arazo handiagoak pairatzen dituela adierazteko adostasuna dago, eta horiek kutsadura atmosferikoarekin lotzen dira (gaixotasun kardiobaskularrak,



arnasketako gaixotasunak eta minbizi motaren bat). Halere, Europako hainbat ikerketek sozialki okerren dagoen biztanleriak airearen kutsadurarekiko (PM10, PM2,5, NO2) esposizio handiagoa duela adierazten dute, beste batzuek, aldiz, kontrako ondorioak lortu dituzte (3, 5, 4).

Haurrek airearen kutsadurarekiko duten suszeptibilitateari dagokionez, eskura dauden ikerketa urriek iradokitzen duten alderantzizko gradientea dagoela airearen kutsatzaileekiko esposizioaren eta klase sozial ahulenerako haurren osasun-egoeraren artean (6). Gainera, haurtzaroan kutsatzaile atmosferikoekiko esposizioa, osasun okerragoa izan daitekeen aurreragoko adin-ean ager daiteke, beraz haurtzaroko esposizio desberdintasuna osasuneko desparekotasun bihurtuko dira helduaroan (11).

Kutsadura atmosferiko, ESEren maila eta osasunaren arteko interakzioaren ikerketan, kontuan izan behar dira 1) ingurumen-esposizio desberdinen metaketa (kanpoko airea, barneko airea, lan-ingurunea eta garraioa), bereziki gizarte-egoera ahulenean dauden biztanlerietan. 2) gizarte-egoera ahulenean dauden ESE baxueneko biztanleriak aurrez osasun okerragoa izatea (gaixotasun kronikoak), 3) arrisku-faktore lehiakorren presentzia (elikadura, etxebizitza, jarrerak) (11).

Bestetik, zarata da bigarren ingurumen-faktorea airearen kutsaduraren ondoren, ingurumenerako morbiditate-kargaren arrazoia baita (12). Zirkulazio-zaratarekiko esposizioak molestiak eta osasun-arazoak sortzen dituela adierazten duen ebidentzia sendoa dago, esaterako, insomnia eta estresa, eta haurretan hiperaktibitatea eta ikasteko arazoak (9,13,14).

ESE baxueneko biztanleriak sarri ingurumen-zaratarekiko esposizio handiagoa du, zirkulazio askoko errepideen ondoan eta/edo industriaguneetatik gertu bizi baitira; hala, bizitegiguneetako inguru-zarata baino handiagoa pairatzen dute (15).

Ingurumen-zaratarekiko esposizioan desparekotasunak aztertzen dituzten ikerketa gutxi daude. Ingurumen-zarataren pertzepzioa ebaluatzen duten lanek ondorioztatu dute talde ahulenerako kausa horrengatik molestia handiagoak identifikatzen dituztela (16). Era berean, hainbat proiektuk, esposizioaren modelizazioan edo zarata-iturriekiko (errepideak, trenbidea eta aireportuak) gertutasun-adierazleetan oinarrituta, ESE ahulena duen biztanlerian esposizio handiagoa identifikatzen dute (17,18).

Hondakin solidoei dagokienez, ez dago ebidentzia sendorik, baina ikerketek adierazten dute lotura dagoela hondakin-gordailuen inguruetan bizitzearen eta osasuneko ondorio txarren artean, esaterako, jaiotzean gutxi pisatzea, malformazioak eta minbizi mota batzuk izatea (19,20), ikerketa gehienak AEBetatik datozen arren (21). Hondakinen gordailuetatik gertu bizi direnek osasun okerragoa dutela hautematen dute eta nekea, insomnia eta burukomin gisa zehazten da hori (20). Zaila da ondorioztatzea erregistratutako sintomak biltegitratutako hondakinek dituzten produktu kimikoek ekarritako mekanismoen edo produktu horiekin erlazionatutako estresaren efektu batek sortutako zuzeneko ondorioa diren (22,23). Halaber, ez dago argi hondakin arriskutsuekiko esposizioan gradiente soziala dagoenik (15,19).

Erreferentzia bibliografikoak

1. Gee GC, Payne-Sturges DC. Environmental health disparities: a framework integrating psychosocial and environmental concepts. *Environmental Health Perspectives* 2004; 112(17):1645–1653. Hemen eskuragarri: <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC1253653/> Atzitze-eguna: 2015eko urtarrila.
2. Arriaga A. Justicia ambiental. El estado de la cuestión. *Revista Internacional de Sociología(RIS)* 2011;Vol.69, nº 3, Septiembre-Diciembre, 627-648, 2011
3. Cambra K. et al. Association of proximity to polluting industries, deprivation and mortality in small areas of the Basque Country (Spain).



- Eur J Public Health 2012; Vol. 23, No. 1, 171–176.62
4. WHO (2010b) Environment and health risks: a review of the influence and effects of social inequalities. Copenhagen, Regional Office web site. Hemen eskuragarri: (<http://www.euro.who.int/pubrequest>, Atzitze-eguna: 2015eko urtarrila
 5. Van Kamp I. et al. Residential environment and health: a review of methodological and conceptual issues. Rev Environ Health. Jul-Dec 2004;19(3-4):381-401.
 6. Kruize H. Et al. What Causes Environmental Inequalities and Related Health Effects? An Analysis of Evolving Concepts. Int. J. Environ. Res. Public Health 2014;11, 5807-5827
 7. Bolte G. et al. Environmental inequalities among children in Europe-evaluation of scientific evidence and policy implications. Eur J Public Health 2010;20(1):14-20.
 8. Prüss-Üstün A, Corvalán C. Preventing disease through healthy environments. Towards an estimate of the environmental burden of disease. Geneva, World Health Organization; 2006. Hemen eskuragarri: http://www.who.int/quantifying_ehimpacts/publications/preventingdisease.pdf. Atzitze-eguna: Atzitze-eguna: 2015eko urtarrila
 9. WHO. Burden of disease from environmental noise. Copenhagen, Regional Office for Europe; 2011. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/1FIDKgA>. Atzitze-eguna: 2012ko azaroa)
 10. WHO. Environmental health inequalities in Europe; Assessment report. Copenhagen, WHO Regional Office for Europe; 2012. Hemen eskuragarri: http://www.euro.who.int/data/assets/pdf_file/0010/157969/e96194.pdf. Atzitze-eguna: Atzitze-eguna: 2015eko urtarrila.
 11. Deguen S, Zmirou-Navier D. Social inequalities resulting from health risks related to ambient air quality—A European review. European Journal of Public Health 2010; Vol. 20, No. 1, 27–35
 12. WHO. EBoDE-project on WHO ECEH web site; 2009. Hemen eskuragarri: <http://en.opasnet.org/w/EBoDE> Atzitze-eguna: 2015eko urtarrila
 13. Van Kempen E et al. The association between noise exposure and blood pressure and ischemic heart disease: A meta-analysis. Environ Health Persp 2002;110:307-317.
 14. Stansfeld SA et al. Aircraft and road traffic noise and children's cognition and health: a cross-national study. The Lancet 2005 June;365(9475):1942-49.
 15. Braubach M, Fairburn J. Social inequities in environmental risks associated with housing and residential location—a review of evidence. European Journal of Public Health 2010; Vol. 20, No. 1, 36–42
 16. Evans GW, Kantrowitz E. Socioeconomic status and health: the potential role of environmental risk exposure. Annu Rev Public Health 2002;23:303–31.
 17. Fyhri A, Klæboe R. Direct, indirect influences of income on road traffic noise annoyance. J Environ Psychol 2006;26:27–37.
 18. Kruize H, Bouwman AA. Environmental (in)equity in the Netherlands. A case study on the distribution of environmental quality in the Rijnmond region. Report No.: 550012003/2004.
 19. Martuzzi M et al. Inequalities, inequities, environmental justice in waste management and health. European Journal of Public Health 2010; Vol. 20, No. 1, 21–26
 20. Vrijheid M. Health Effects of Residence Near Hazardous Waste Landfill Sites: A Review of Epidemiologic Literature. Environ Health Perspect 2000;108(suppl 1):101-112 Disponible en <http://ehpnetl.niehs.nih.gov/docs/2000/suppl-1/101-112vrijheid/abstract.html>
 21. Burwell-Naney K. et al. Spatial disparity in the distribution of superfund sites in South Carolina: an ecological study. Environ Health 2013;12: 96.-
 22. Mattiello A. Health effects associated with the disposal of solid waste in landfills and incinerators in populations living in surrounding areas: a systematic review. Int J Public Health 2013;58(5):725-35.
 23. Porta, D. Systematic review of epidemiological studies on health effects associated with management of solid waste. Environmental Health 2009;8:60. Hemen eskuragarri: <http://www.ehjournal.net/content/8/1/60> Atzitze-eguna: 2015eko urtarrila



7.2.2.13. Ingurumen-arrisku berriak eta osasunarekiko erlazioa

Aurrerapen zientifikotik eratorritako prozesu edo teknologia berriak dira (horien erabilgarritasunak zehazten du horien erabilera azkar zabaltzea); hala, arriskuarekiko esposizio eta pertzepzio sozialaren probabilitatea areagotu egiten da, baina horiek osasunean dituzten efektuak oraindik ez dira ondo ezagutzen.

Ebidentziaren berrikuspena erradiazio ez-ionizatzaileen eremu elektromagnetikoei eta fracking teknikaren bidez erregai fosilen erauzketari lotutako arriskueta zentratzen da, gure ingurunean nabarmenenak baitira.

1. Erradiazio ez-ionizatzaileen eremu elektromagnetikoak

Eremu elektromagnetikoak (EEM) aldi berean lekualdatzen diren eta argiaren abiadura hedatzen diren uhin elektrikoek eta magnetikoen konbinazioa dira. Beren ezaugarria maiztasuna da; izan ere, gero eta handiagoa bada uhinak garraiatzen duen energia-kopurua handiagoa da. ELFak bi talde handitan sailkatzen dira: erradiazio ionizatzaileak (molekulen arteko lotura hausteko gaitasuna dute eta horrek osasunean ondorio argia du) eta ez-ionizatzaileak (behe-maiztasunekoak dira, energia gutxiago dute eta ez dituzte hausten molekulen arteko loturak). Azken horiek duten maiztasunaren arabera horrela sailkatzen dira:

- Muturreko behe-maiztasuneko EEM (ELF): 0 eta 300 Hz bitarteko maiztasunekin.
- Tarteko maiztasuneko EEM (FI): 300 Hz-10 MHz
- Irrati-maiztasuna (RF): 10 MHz- 300 GHz

EEM ez-ionizatzaile artifizialak erabilgarriak dira gure eguneroko bizitzarako, gero eta presentago daude teknologia berrietan eta pertsonen ohiko ingurunean. Hauek guztiek sortzen dituzte: etxetresna elektrikoek, transmisio-sistemek eta elektrizitate-banaketak, indukziozko sukaldeek, TB eta ordenagailu pantailek (FI), baita telekomunikazioetako instalazioek, telefono mugikorrek eta WiFi, Bluetooth gailuek edo oinarri finkoko telefonoek "DECT" (RF).

EAEko egoera

Azken urteetan teknologia hauen erabilera azkar hedatu da, eta herritarrek horiek osasunean izan ditzaketen ondorioei buruzko kezka handiagoa dute. Gure erkidegoan hainbat mobilizazio, salaketa eta neurketa-eskaera egin dira, bai telefoniako antenei bai WiFi⁴² teknologiei eta goi-tentsioko instalazioei⁴³ dagokienez. Herritarren hainbat plataforma eratu dira telefonia-antena instalatzearen aurka, baita Gueñes/Itxaso eta Vitoria-Gasteiz/Castejón goi-tentsioko linea berrien proiektuen aurka ere, azken horien aldarrikapenak egiteko arrazoia paisaiagatik izan da osasunagatik baino⁴⁴.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Eremu Elektromagnetikoen eta Osasunean dituen Efektuei buruzko gida bat du, efektu biologikoei eta legeei buruzko informazioa biltzeaz gain, teknologia horiek erabiltzen dituztenak babesteko gomendio batzuk ere baditu (7). Egoera ezagutzeko helburuarekin, sail horretatik EMM ez-ionizatzaileen neurketak egiten ari dira toki sentisiblen inguruetan, esaterako, eskola, haur-eskola eta ospitaleen inguruetan. Era berean,

42 <http://magonia.com/files/ArartekoOndas.pdf>. (2015-09-22an kontsultatua)

43 <http://ehkeap.blogspot.com.es/> y <http://www.covace.org/> (2017-05-05ean kontsultatua)

44 <http://bit.ly/1KfMmQ8>; <http://mun.do/1FcO7yS>; <http://bit.ly/1Kxh9WD> (2015-09-22an kontsultatua)



eztabaidarako mahai bat sustatu dute udalek, herritarren elkarteek eta sektoreko ordezkariak batera izenpetzeko eta beren borondatez jardunbide egokien kode bat.

Estatu normatiboari dagokionez, EAEn 1066/2001 Errege Dekretua da aplikatzekoa, 1999/519/EE gomendioan oinarritua (erradiazio ez-ionizatzaileen kontra Babeserako Nazioarteko Batzordearen gidalerroei buruzkoa, kontuan izanik soilik osasunerako berehalako eta epe laburrerako efektuak). Gomendio horiek zalantzan jarri dira eta Europako hainbat herrialdek RF eta ELFrekiko esposizioarekiko murrizketa handiagoak aplikatzen dituzte. Ildo horri jarraikiz, Errege Dekretuaren 8. artikulua eta CTE/23/2002 Aginduak ezartzen dute justifikatu egin behar dela estazio irrati-elektrikoen esposizioaren murrizketa baldin eta haur-eskola, ikastetxe (haur-hezkuntza, lehen-hezkuntza, bigarren hezkuntza), osasun-zentro, ospitale, parke publiko eta egoitza edo zentro geriatrikoetatik 100 m inguruan badaude.

2011ko urrian, Legebiltzarrak adostasunez adierazi zuen onartzen zituela⁴⁵ Europako Kontseiluak 2011ko maiatzaren 27an 1815 Ebazpenean jasotako gomendioak. Ebazpen hori eremu elektromagnetikoen eta horiek ingurunean izan ditzaketen efektuen balizko arriskuei buruzkoa da⁴⁶, eta arrazoizko neurri guztiak hartzea proposatzen zuen EEMekiko esposizioa murrizteko, batez ere, telefono mugikorrek igortzen dituzten RFekiko; nabarmenduz talde ahulak (haurrak eta gazteak) babestu behar direla eta prebentzio-atalaseak ezartzea eskatuz epe luzerako esposizio-mailekiko, Arretaren Printzipioarekin bat, berebat, ALAR printzipioa aplikatu beharko da (arrazoizko eran ahalik eta baxuen) muga-balioak ezartzean.

EEM ez-ionizatzaileen inpaktua osasunean

1979tik, bizilekua goi-tentsioko (CEM-ELF) kableetatik gertu egotea eta haurren leuzemia agertzea lotu zituen lehen ikerketa sortu zen urtea, EEM ez-ionizatzaileei eta osasunari (8) buruzko ikerketa ugari egin dira eta horietatik REFLEX proiektua (9, 10) eta Interphone proiektua nabarmentzen dira (10, 11). Gaur egun ere, ikerketen emaitzek ez dute norabide berdina adierazten; beraz, EEM ez-ionizatzaileen eta osasuneko efektuen artean lotura dagoela adierazten duten ikerketak dauden arren, beste ikerketa batzuetan erlazio hori ez da egiaztatzen (12,13).

- UCLA Health impact assessment clearinghouse. Learning and information center. Sectors and Causal pathways. Disponible en <http://bit.ly/1FfoXPQ>. [Acceso 16 09 2015].
- Udalsarea 21. Salud y desarrollo urbano sostenible. Guía práctica para el análisis del efecto en la salud de iniciativas locales de urbanismo. Bilbao: Ihobe; 2014. Cuadernos de Trabajo Udalsarea 21 n° 17. Disponible en:<http://bit.ly/1iLDUPv> [Acceso 02-05-2017]
- Udalsarea XXI. Salud y desarrollo urbano sostenible. Guía práctica para el análisis del efecto en la salud de iniciativas locales de urbanismo. Abril 2014. Disponible en <http://bit.ly/1UUcGSL>. [Acceso 16 09 2015].
- Udalsarea XXI. Salud y desarrollo urbano sostenible. Guía práctica para el análisis del efecto en la salud de iniciativas locales de urbanismo. Abril 2014. Disponible en <http://bit.ly/1UUcGSL>. [Acceso 02 05 2017].
- Ulrich, R.S. Effects of gardens on health outcomes: Theory and research. In *Healing Gardens. Therapeutic Benefits and Design Recommendations*; Cooper, M.C., Barnes, M., Eds.; John Wiley & Sons: New York, NY, USA, 1999.
- University of Minnesota. 2007. Design for Health. Key Questions: Accesibility. Versión 1.0. Disponible en: <http://bit.ly/1M73l4J>. [Acceso 11 12 2015]
- University of the West of England, Bristol. Building health. Planning and designing for health and happiness. Part 2b. Transport. Disponible en: <http://bit.ly/1FMgJJP>. [Acceso 25 11 2015].
- University of the West of England, Bristol. Building health. Planning and designing for health and happiness. Part 2b. Transport. Disponible en: <http://bit.ly/1FMgJJP>. [Acceso 16 09 2015].
- Van Kamp I. et al. Residential environment and health: a review of methodological and conceptual issues. *Rev Environ Health*.Jul-Dec 2004;19(3-4):381-401.
- Van Kempen E et al. The association between noise exposure and blood pressure and ischemic heart disease: A meta-analysis. *Environ Health Persp* 2002;110:307-317.
- Venne M. Les citoyens, alliés du système de santé. *Global Health Promotion* 2014 Mar;21(1 Suppl):50-3 PM:24737815



- Vrijheid M. Health Effects of Residence Near Hazardous Waste Landfill Sites: A Review of Epidemiologic Literature. *Environ Health Perspect* 2000;1 08(suppl 1):101-112 Disponible en <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC1637771/>. [Acceso 15 05 2017].
- Vuori I, Oja P. Physical activity in transport: value for health. Tampere, Urho Kaleva Kekkonen Institute; 1998.
- Wallerstein N. What is the evidence on effectiveness of empowerment to improve health? Copenhagen: Who Regional Office for Europe; 2006. Health Evidence Network Report. Disponible en: <http://bit.ly/1Le8UCP> [Acceso 05-02-2015]
- Wallid El Ansari, ArranStibbe. Public Health and the Environment: What skills for sustainability literacy and why?. *Sustainability* 2009;1:425-40
- Watkiss, P., Brand, C., Fintan, H., Pilkington, A, Mindell, J., Joffe, M. and Anderson, R. London's health. On the move. Informing transport health impact assessment in London. 2000. Disponible en: <http://bit.ly/1FSb6vs>. [Acceso 16 09 2015].
- Watson, S; Studdert, D. Markets as Sites for Social Interaction (including market planning suggestions). Disponible en <http://bit.ly/1KmAlzX>. [Acceso 02 05 2017].
- Western Sydney Regional Organization of Councils Ltd (WSROC) and AnniGethin (AGA Consulting P/L). Greater Western Sydney Urban Development Health Impact Assessment: Final Report. Western Sydney Regional Organization of Councils Ltd; 2007. Disponible en <http://bit.ly/1LxEsiT>. [Acceso 16 09 2015].
- WHO (2010b) Environment and health risks: a review of the influence and effects of social inequalities. Copenhagen, Regional Office web site. Disponible en: (<http://www.euro.who.int/pubrequest>, [Acceso 11 01 2015].
- WHO Department of Public Health, Environmental and Social Determinants of Health. Healthy environments, healthy people. PHE e-News. Disponible en <http://www.who.int/phe/e-news/en/>. Acceso 15 12 2015
- WHO. Burden of disease from environmental noise. Copenhagen, Regional Office for Europe; 2011. Disponible en <http://bit.ly/1FIDKgA>. Acceso: noviembre de 2012)
- WHO. Departamento de Salud Pública y Medio Ambiente (PHE). Grupo Orgánico de Seguridad Sanitaria y Medio Ambiente (HSE). Organización Mundial de la Salud (OMS). La salud en la economía verde. Los Co-beneficios de la mitigación al cambio climático para la salud. SECTOR DEL TRANSPORTE. Disponible en: <http://bit.ly/1MrliRn>. [Acceso 16 09 2015].
- WHO. EBoDE-project on WHO ECEH web site; 2009. Disponible en: <http://en.opasnet.org/w/EBoDE> [Acceso 11 01 2015].
- WHO. Environmental health inequalities in Europe; Assessment report. Copenhagen, WHO Regional Office for Europe; 2012. Disponible en http://www.euro.who.int/__data/assets/pdf_file/0010/157969/e96194.pdf. [Acceso 11 01 2015].
- WHO. Public health, environmental and Social Determinants of Health. Disponible en: <http://www.who.int/phe/en/>. Acceso 15 12 2015
- Witter RZ, McKenzie L, et al. The use of health impact assessment for a community undergoing natural gas development. *Am J Pub Health* 2013;103(6):1002–10. Disponible en: <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/23597363>. [Acceso 08-05-2017]
- World Health Organization Global health risks: mortality and burden of disease attributable to selected major risks. World Health Organization, Geneva, 2009.
- World Health Organization. Health in all Policies: Helsinki Statement. Framework for Country Action. 2014
- World Health Organization. WHO research agenda for radiofrequency fields. Copenhagen, WHO Regional Office for Europe; 2010. Disponible en <http://bit.ly/1NJ3mR0>. [Acceso 22-09-2015]



9. ERANSKINAK

1. eranskina. 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren laburpen analitiko⁵⁴

Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/98 Lege Orokorra (IB) ezartzen du Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politika Ingurumenaren Esparru Programa batean islatu behar dela.

Hau 4. edizioa da. Kasu honetan gizakiaren garapenerako eta hazkunde jasangarrirako 2020 Euskadi proiektuaren oinarri diren Eusko Jaurlaritzaren X. Legegintzaldiko 14 plan estrategikoen artean dago, Enplegua eta Hazkunde Jasangarria blokearen barnean, eta 4. helburu gisa jasotzen du 2020 IV. IEP egitea eta 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren konpromisoak garatzea.

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politikaren helburu nagusia hau da: pertsona guztiek bizitza duina izateko eskubidea izatea, gaurkoek eta biharkoek, kalitatezko ingurune batean. Eusko Jaurlaritzarentzat ingurumenaren kontzeptuak gizakiaren bizitza baldintzatzen duten faktore guztiak hartzen ditu, ez soilik naturalak, baita sozialak, ekonomikoak eta kulturalak ere, eta ingurumena ongizateari, enplegu-sorkuntzari eta ekonomia indartsu baten garapenari eta etorkizuna duen ekonomiari laguntzen dion zeharkako elementu bat bezala txertatzen du (Pertsona helburu. Pertsonak ingurumen politikaren muinean)

IEP honek bat egiten du Ingurumenaren Europako Politikarekin, Ingurumenaren alorreko Batasunaren Ekintzarako VII. programa orokorarekin (ondo bizitzea, gure planetaren mugak errespetatuta).

2002tik urtero argitaratzen da ingurumen-adierazle nagusien txosten bat Euskadirako adierazle nagusien bilakaerarekin.

2013ko egoera

Klima-aldaketa: berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak % 3 murriztu dira 1990etik eta 2007tik beherazko joerak jarraitu egiten du. CO₂ren isuriak % 18 murriztu dira,

54 http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/pma2020/es_def/adjuntos/pma2020.pdf



Airearen kalitatea: hobekuntza handia izan du eta gaur egun airearen kalitate txarraren batez bestekoa egun batetik beherakoa da,

Uraren kalitatea: ur-masen kalitatea etengabe hobetu da, hondartzen egoera 1985ean % 44 eskasa izatetik 2012an % 11 izatera pasatu da. Biztanleek edateko urarekiko duten gogobetetasuna % 80tik % 96ra pasatu da,

Lurzoruaren kalitatea: hobetzen ari da pixkanaka. Gaur egun berreskuratutako lurzoru kutsatuaren hektarea-kopurua 600ekoa da, urtean ia 100 hektarea, azken urteetan,

Biodibertsitatea: Euskadik 2000. urtean lurraldearen % 12 zuen babestuta, gau egun, ordea, % 20,3,

Hondakinen sorkuntza: hiri-hondakinak % 76 igo dira 1986-2010 bitartean, baina industriako hondakinen sorkuntza % 79 murriztu da eta arriskutsuena % 97,

Materialen kontsumoa: 1990etik bikoiztu egin da,

Gizartea eta ingurumena: Herritarrek ingurumen-arazo nagusiekiko duten pertzepzioa aldatu egin da. 2001ean uraren kutsadura eta paisaiaren suntsiketa ziren; 2013an, aldiz, airearen kutsadura eta klima-aldaketa. Industria pisua galtzen ari da kutsadura sortzen duen pertzepzio nagusiarekiko (2001ean % 63koa zen; 2011n, aldiz, % 53koa) eta herritarrek duen protagonismoa onartzen dute.

Aurrez egindako lana jasotzen duen programa honen ikuspegia da ingurumenaren hobekuntzak aberastasuna, enplegua eta ongizatea sortzeko eskaintzen dituen aukera ekonomiko eta sozialak aprobetxatzea.

2020 IV. IEP, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren funtsezko pieza bat da, hazkunde jasangarria dela eta. Enplegua eta ekonomia berriz aktibatzeko aukerak izateko benetako iturri gisa aprobetxatzen da: a) enpresa berritzaileen, enplegu berdearen hobia, b) baliabide eta lehengaiak aurrezteko epe ertain eta luzerako lehiakortasun-iturri gisa, c) espezializazio adimentsurako nitxoa eta d) proiektiorako faktorea eta nazioarteko irudia.

Bestetik, gizakiaren garapenari laguntzen dio pertsonen osasunerako funtsezko alderdi gisa (ura, aire, lurzoruaren kalitatea eta gehiegizko zarataren aurkako babesa), baita hondamendi naturalak prebenitzeko funtsezko alderdi gisa (ekosistema naturala zaintzea) ere.

2020 IV. IEPren helburua

Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak, gidalerroak eta helburuak hedatzea ingurumenaren eta garapen jasangarriaren eremuan (19. or.).



2020 IV. IEPren lantze-prozesua

Egindako analisia 8 dokumentutan jasotzen da

TXOSTENAK	EDUKIA
Nondik (1980-2012)	Ibilbide historikoa
Ildo estrategikoak 2020	Administrazioak ase beharreko premiak eta bere tes-tuingurua legegintzaldiko programarekin
Euskadiko ingurumen-profila, 2013	Adierazle esanguratsuen multzoa (klima-aldaketa, airea, ura, lurzorua, biodibertsitatea, materialen fluxua eta hondakinak)
Ingurumen-errendimenduaren indizea	Nazioarteko erreferentzia bat da jasangarritasuna ebaluatzeko (EPI)
III. IEPren ebaluazioa eta Garapen Jasangarrirako Estrategia, 2002-2020 (2014)	
Euskadiko baliabideen produktibitatea, 2014	Baliabide materialen kontsumoko bilakaera Euskadin
Ingurumen-egoerak 2030 (2014)	Galdera hauei erantzuten die: nola eboluzionatu de-zake ingurumenak Euskadin?, Zein faktorek eragingo dute?, erronkak?
Ekonomia berdea (2014)	Ekonomia berdearen analisia: emandako pausoak eta etorkizuna

Partaidetza-prozesu bat gauzatu zen administrazioaren konpromisoa lortzeko eta gizartearen erantzuna aktibatzeko. Guztira, 1000 ekarpen bildu ziren.

Prozesuan parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalsarea 21eko udalek. Guztira maila tekniko eta politikoko 100 arduradun baino gehiagorekin batera lan egin zen.

*Stakeholder*sei dagokienez, martxan jarri ziren kanal hauek: web-plataformak (Irekoa), informazio-puntuak, *online* galdetegiak hezkuntzaren arloan, *mailinga* interes-taldee, ingurumen-to-paketa enpresa-arloarekin, etab. 110 agente bildu ziren.

Interes bereziko zat jotako arloak hauek izan ziren:

- Erantzunkidetasun publiko-pribatua
- Efizientzia energetikoa
- Biodibertsitatea-ekosistemak
- Lurralde osasungarria

Ikuspegi estrategikoa

2030ean, Euskadiko herritarrek ingurumen osasuntsua izango dute. Oso ondo ezagutuko dute, eta horrekiko konpromisoa azalduko dute, oso harro egongo baitira leheneratu izanaz, etorkizuneko belaunaldiei egoera bikainean uzteko.



Hori guztia honen guztiaren ondorio da **industrian oinarritutako ekonomia berde, lehiakor eta berritzaile** baten alde apustu egin izanaren ondorio. Apustu horrek, gainera, **lan aukera ugari** sortzea ahalbidetuko du, betiere **baliabide naturalak ahalik eta gehien optimizatzen dituen karbono kontsumo baxuko testuinguru batean (23. or.)**

Ikuspegi hori etika, ardura eta solidaritatearen printzipio eta balioetan oinarritzen da

Etika: esaten dena egitea eskatzen du (kutsatzen duenak ordaindu egiten du), ingurumen-alderdiak politiketan integratzea eta genero-berdintasunarekin konprometitzea

Erantzukizuna: sektore publikoa era efiziente eta zorrotzean kudeatzea; horrek esan nahi du gobernantzan bikaintasunerantz aurrera egitea, herritarren partaidetza kontuan izatea, arretaren printzipioa aplikatzea⁵⁵, estrategikoki planifikatzea era jasangarrian denboran zehar eta eskura dagoen ezagutza zientifiko hobea erabiltzea

Solidaritatea: pertsonak helburu eta giza eskubideen arloan batzea inplikatzeko du. Zehazki, pertsonen osasuna funtsezko eskubide gisa babestea, garatzen ari diren herrialdeekin solidario izatea eta etorkizuneko belaunaldiarekin konprometitzea

Ikuspegiaren funtsezko hiru zutabeak ingurumenaren **babesa, aurrerapen** sozioekonomikoa eta konpromisioa **pertsonetikiko** (hiru Pak)

Helburu estrategikoak

Planak sei helburu estrategiko ezartzen ditu eta horiek 75 jarduketetan hedatzen dira. Jarduketa ugari lehentasuna eman zaie 2017an eginda izateko.

Gainera 6 ekimen enblematiko proposatzen dira:

- Ingurumenean eredu den administrazioa
- Lurralde osasungarria
- Fiskalitate ekologikoa
- Fabrikazio berdea
- Elikadura zirkularra
- Azpegitura berdeak

1. helburu estrategikoa: *Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzeko, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak zaintzeko (31. or.)*

Horretarako, honetan zentratzen da:

1. Era efektiboan integratzea ingurune naturalaren kontserbazioa politika sektorialetan (ingurumen-aldagaiak txertatzea planetan eta arau sektorialetan, koordinazioa indartzea, ikuskapena indartzea eta ingurumeneko kostuak zein onurak integratzea administrazioaren jarduketetan)
2. Ekosistemen eta zerbitzuen galera mugatzea (2020 Biodibertsitatearen Estrategia lantzea, ebidentzian eta ebaluzioan oinarritutako neurriak aplikatzea,

55 Zalantza zientifiko arrazoizkoen kasuan osasunerako balizko kalteak saihestea nagusituko da. Halere, ebidentzia zientifikoaren gabezia ez da behar bestekoa osasuna, ingurumena edo natura babesteko neurriak atzeratzeko.



informazio-sistemak, espezie mehatxatuen kontserbazio-egoeraren jarraipena indartzea)

3. Lurzoruaren okupazioa geldiaraztea, erabilerak nahastuta eta espazio degradatuak berroneratuta (lurralde antolamendua sustatzea biztanleria-dentsitate handiagoarekin, erabilerak konbinatzea eta lurzuaren kontsumoa optimizatzea, zerbitzu ekosistemikoak indartzea zona degradatuetan eta berdeguneak sustatzea)
4. Tresna ekonomikoak txertatzea kapital naturalaren kudeaketan (ebaluazioa indartzea eta lehen-sektorerako laguntza ekonomikoen inpaktuak identifikatzea zerbitzu ekosistemikoetan)
5. Agenteak konprometitzea eta sentsibilizatzea (kudeaketa-praktika atseginak sustatzea biodibertsitatearekin, informazioa intentsifikatzea biztanlerian eta jardunbide egokien eskuliburuak egitea habitatak berreskuratzean)

2. helburu estrategikoa: *Ekonomia lehiakor eta berritzaile bateranzko urratsak ematea, karbono-isurketa txikikoa eta erabilera eraginkorrekoa (35. or.)*

1. Karbono-isuri gutxiko ekonomia lehiakorra sustatzea (2030erako Klima Aldaketaren Estrategia egitea, aurrezkoa eta efizientzia energetiko sustatzea, herritarren erantzukidetasuna indartzea)
2. Materialen kontsumoa optimizatzea (espezializazio adimentsuaren estrategia-ren garapenari laguntzea, ekodiseinua indartzea eta produktuaren zein prozesuaren ekoberrikuntza sustatzea: enplegu berdea, eta teknologia berriak txerta daitezela sustatzea)
3. Ekonomia zirkular baten alde egitea; hala, ez da ezer alferrik galduko (isuria zigortzeko eta berrerabiloena sustatzeko tresnak, produktuen funtzionalitatea eta iraunkortasuna areagotzea eta ekintzailtza sustatzea ziklo eta ekosistema industrialak ixtea sustatzen duen negozio-eredu berrien bidez)

3. helburu estrategikoa: *Herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea (39. or.)*

1. Baliabideen kalitatea hobetzeko joera mantentzea (gainazaleko eta lurpeko ur-masen egoera ona lortzea, kalitatezko uraren eskaera era jasangarrian ase-tzea, airearen kalitatea ziurtatzea eta lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea)
2. Gero eta kezka handiagoa sortzen duten erronkei eta bektoreei aurre egitea (frenatzea muturreko fenomenoek efektuak, ingurumen-arriskuen kudeaketa eta monitorizazioa indartzea eta ingurumen-kalitatearen koste/onura ekonomikoa eta soziala ebaluatzea)

4. helburu estrategikoa: *Udalerrien jasangarritasuna handitzea (42. or.)*

Udallerrietako herritarren bizi-kalitatea hobetzera bideratutako udal-politiketan 2020an ardatz nabarmen gisa ingurumen jasangarria txertatu duten Euskadiko herri eta hirietan helburu estrategiko gisa planteatzen da IV. IEP.

1. Hirigunean ekintzailtza eta enplegu berdea sustatzea (balizko ekintzaileak prestatzea aukera ekoteknologikoen inguruan, enpresetako lokalizazio-azpiegiturak optimizatzea, berrikuntzari laguntzeko ekimenak eta jardunbide hobek areagotzea udalerrietan eta lankidetzak-sareak indartzea garapen jasangarrian)



2. Pertsonen kontsumo arduratsua sustatzea (kontsumitzailearekiko informazio-sistemak garatzea, produktuen ekoetiketa sustatzea, kontsumo arduratsuaren jarrerak sustatzea eta tokiko kontsumoa, zirkuitu laburrak eta elikaduran ziklo itxi dadila sustatzea)
3. Azpiegitura berdeak garatzea klima-aldaketa murriztu dadila sustatzeko hiri-gunean natura integratzen duten konponbideen bidez (azpiegitura berdeak planifikatzea LAGkin⁵⁶ eta lurralde-plan sektorialekin, udalerrien artean partekatutako azpiegituren garapena sustatzea, kapital naturalari buruzko informazio ematea udalerriei)
4. Pertsonen eta merkantzien mugikortasun jasangarriaren hiri-ereduak sustatzea (desplazamenduak bizikletaz eta oinez egin daitezela sustatzea, garraio publiko eta partekatua IKTak aprobeztatuta eta energia berriena sustatuta, garraio-eskariaren kudeaketa-sistemen kudeaketan aurrera egitea)
5. Erabilera arduratsua sustatzea (hiri-sareen leheneratzea sustatzea enpresaren eredu jasangarriago bateranzko trantsizioa, parke eraiki efizienteago bat eta kalitatezko espazio publiko bat sustatuz, aurrezteko jarrerak eta etxeetako zein enpresetako efizientzia sustatzea)
- 6.-Herritarren sentsibilizazioa eta partaidetza indartzea (prestakuntza eta sentsibilizazio-kanpainak egitea herritarren karbono-urratsa murrizteko, Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21en arteko koordinazioa areagotzea, tokiko administrazioaren eredugarritasuna sustatzea jasangarritasunean eta partaidetza-prozesuak indartzea)

5. helburu estrategikoa: *Politiken koherentzia ziurtatzea, ingurumenaren integrazioa sustatuz eta erantzukidetasun publiko-pribatua bultzatuz (46. or.)*

IV. IEP helburu estrategiko gisa planteatzen da *2020an ingurumenaren integrazioa sendotuta egotea. Ingurumenaren inguruko politika publikoak koherenteak izan daitezela eta ingurumen-hobekuntzetara bideratuta neurriak onuragarriak izan daitezela beste politiketarako*

1. Ingurumenaren aldagaia txertatzea politika publikoetan (IEPren ekimenak sustatzea ingurumen-aldagaia sailetan integratzeko plataforma gisa, ingurumen-kontakteta politika guztietan eta aurrekontuetan bistaratzea, IEPz arduratzen diren pertsonen sareko lana sustatzen duten tresna berriak sartzea, Ingurumen Saila, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzaren arteko jarraipenerako koordinazio-mekanismoak sortzea, faktore sozioekonomiko eta ingurumen-fakoreen arteko interakzioaren txertaketan aurrera egitea)
2. Ingurumenaren alorrean eredu den administrazio bat eratzeko aurrera egitea (ekintza publikoaren ingurumen-aztarna kuantifikatzen eta minimizatzen aurrera egitea, erosketak publiko berdea sustatzea, ingurumen-kudeaketako tramitazioa eta prozedurak murriztea eta arintzea)
3. Gizarte zibilaren eta erantzukidetasun publiko-pribatuaren partaidetza eta elkarrizketarako guneak sustatzea (partaidetzarako sistema berriak txertatzea IKT eta sare sozialen bidez, ingurumen eta gizakiaren ongizateari buruzko

56 LAG: Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak



ezagutza hobetzea, koordinatzea eta sustatzea Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarearen ikerketa-ahaleginak ingurumenaren alorrean eta ingurumeneko politiketara eramatea, arrazionalagoa den ingurumeneko informazio-sistema partekatua sustatzea)

4. Euskal gizarte osoan jasangarritasunerako hezkuntza eta kontzientziazioa bultzatzea (Jasangarritasunerako Ingurumenerako Hezkuntza Estrategia lantzea, Tokiko Agenda 21 sustatzea Lanbide Heziketan, ICTak eta sareko lana aprobeztatzea ingurumen-prestakuntzan, aurrera egitea ingurumen-prestakuntzan antzeko beharrak dituzten intereseko taldeentzat, prestakuntza-gaitasunak garatzea ingurumen-gaietan)

Hemen dokumentu honetako 4. orrialdeko **ekimen enblematikoak** sartzen dira; ekimen horiek ekintza espezifikoak ere badituzte. Oro har, HEetan daude baina horietako batzuk espezifikoagoak dira eta gainera ekimen bakoitzaren lantaldea eta 2017an erdietsi beharreko lorpenak definitzen dira (50-55 orrialdeak).

Adibide gisa, Lurralde Osasungarriari buruzko ekimenean Eusko Jaurlaritzaren lan-arlo gisa txertatzen da honakoa:

Politika guztietan osasun-ikuspegia izatea. Osasunaren eta ingurumenaren aldagai lurralde-politikan txertatzea, **osasun-lentearen tresna** Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitzaren arloetako ekimen eta esku-hartze esanguratsuei aplikatuta.

6. helburu estrategikoa: *Euskadiren proiektio eta nazioarteko erantzukizunari laguntzea, nazioartekotze-planen bidez, herritarren konpromisoa errotuta (57. or.)*

1. Ingurumenetik Euskadiren nazioartekotze-estrategiari laguntzea (instituzio eta sail aurreratueni nazioartekotzearen bultzadan laguntzea, nazioartean agenteek egindako lana babestea, ingurumenari buruzko foro globaletan parte hartu dadila erraztea eta gure gazteek jasangarritasun-programetan parte har dezatela sustatzea)

IEPren 59. orrialdean kudeaketa eta jarraipenerako ereduak agertzen da; bertan, indarraldia amaitu arteko urteko aurrekontua sartzen da.



2. eranskina. Inpaktuak 2020 IV. IEPre osasunaren mugatzaile sozialetan, Eusko Jaurlaritzan baliozkotutako tresnan oinarrituta identifikatuak

Politika publiko sektorialek osasunean duten efektuak identifikatzeko tresna

2015

[Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak baliozkotutako Checklista egokitzea 14 politika publiko autonomikori aplikatuta eta politika sektorialen profesional arduradunen pertzepzioari buruzko ikerketa kualitatibo baten bidez. Osasuneko Desparekotasunen Mugatzaile Sozialetako inpaktuak identifikatzeko tresna bat da, maila autonomikoan, tokikoan eta erki-degokoan aplika dadin]

Osasuna Politika Guztietan (OPG)

Finantziarioa: Ikerketa Komisionatuaren Laguntza. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren 2006COM01 espediente-zk.

Dokumentu hau honela aipatu behar da:

Aldasoro Elena, Bacigalupe Amaia, Calderón Carlos, Esnaola Santiago, Sanz Elvira

Herramienta de cribado para la Evaluación del Impacto en Salud de las políticas públicas sectoriales. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, 2014.

Dokumentu osoa hemen eskura daiteke:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/setp/es_def/adjuntos/cribado.pdf

Gutunak bidaltzeko: Elena Aldasoro: ealdasoro-san@euskadi.eus

Sarrera

Azken hamarkadetan osasuneko hobekuntza nagusiek aurrerapenak egiten lagundu dute osasuneko mugatzaile sozial (OMS) gisa ezagutzen diren faktore-bitarte handi batean. Kalitatezko sistema sanitario batetik harago, hezkuntza, etxebizitza, hirigintza, ingurumena, garraioa, enplegua, babes soziala eta politika fiskalak bezalako faktoreek paper erabakigarria



dute biztanleriaren osasun-mailan eta osasunaren banaketa sozialean. Politikek osasunean duten efektuari dagokionez, erabakien arduradunek kontuak eman ditzatela hobetzea bere helburuen artean duen tresnetako bat, formulazioaren edozein fase eta mailetan, Osasuneko Inpaktuaren Ebaluazioa (OIE) da.

OIE Gotemburgon definitu zen adostasunez: «Prozeduren konbinazio bat da. Prozedura horiei esker, politika, programa edo proiektu batek biztanleriaren osasunean dituen efektuak eta efektu horiek biztanleria horretan duten banaketa juzgatu daiteke.» Politika publiko osasungarriak hartzea sustatzen duen praktika bat da' proposamen baten efektu positiboak areagotzera eta negatiboak murriztera bideratutako gomendioak eginda; horrela, erabaki-hartze informatuetan lagunduz.

OIE definitzen duten bi funtsezko ezaugarri daude. Batetik, balizko erabakiek osasunean etorkizunean izan ditzaketen ondorioak aurreikusten saiatzen da eta, bestetik, erabaki-hartzeen prozesuan informatzen saiatzen da. Horrela, OIEk osasun publikoari laguntzen dio eta, horrela, gizartearen izenean erabakiak hartzen dituzten pertsonak aurrez ezagutu dezakete erabaki horiek nola eragin diezaizketen biztanleriaren osasunari.

OIE baten prozesuak bost fase hauek ditu: 1) baheketa, 2) zuzendaritza-taldea eta lan-plana ezartzea, 3) ebaluazioa, 4) gomendioak egitea eta 5) prozesuaren eta emaitzen monitorizazioa-ebaluazioa. Baheketaren lehen fasea garrantzitsuentzat jotzen da, zeren hurrengo etapak gara daitezela eragiten du. Bere helburua osasunaren terminoetan ebalua daitezkeen esku-hartzeak identifikatzea da.

Galdetegi hau eskualdeko edo estatuko politika, plan eta programen baheketarako tresna gisa diseinatu da, ekitatearen ikuspegia era esplizituan txertatuta. Proposamenaren garrantzia baloratu ondoren, era sistematikoan berrikusten da proposamenak osasuneko mugatzaile sozialekin duen erlazioa eta, emaitzaren eta aldaketak txertatzeko egingarritasunaren arabera, OIE batek osatzen duen edo beste ebaluazio mota bat egokia den erabakitzen da.

Tresna hiru zatitan egituratzen da:

- **1 atala:** Proposamenak gobernu autonomikoarentzat duen garrantzi politiko-estrategikoa ebaluatzeko eta eragin diezaiekeen biztanleria-taldeak identifikatzeko helburu bikoitza du,
- **2 atala:** osasuneko mugatzaileei eta osasun-arloko desparekotasunei buruzko proposamenaren balizko inpaktua baloratzera bideratua,
- **3 atala:** aurreko ataletan jasotako informazioa aztertu eta sintetizatzen du eta baheketata-etapatik harago aurrera egiteko eta OIE oso bat edo beste ebaluazio mota bat egiteko egokitasuna eta bideragarritasuna baloratzen du.



Proposamen politikoaren izenburua⁵⁷ (araua, plana, programa, proiektua, etab.)

IV. Ingurumen Esparru Programa

Helburu orokorrak

Eusko Jaurlaritzaren politika publikoak, gidalerroak eta helburuak hedatzea ingurumenaren eta garapen jasangarriaren eremuan

Garapenaren gaur egungo egoera (formulatu, onartu edo burutzeko fasean)

Burutzen

Arduraduna (izena, erakundea, postua)

Marta Iturribarria Alexander Boto

1. atala. Proposamen politikoaren eta ukitutako biztanleriaren funtsezko ezaugarriak**1.1. Proposamen politikoaren garrantzia: Gobernu autonomikoak formulatutako konpromiso estrategikoekin eta osasunarekin koherentzia izatea⁵⁸**

a) Esku-hartzea Eusko Jaurlaritzak X. Legegintzaldirako dituen konpromisoetako baten arabera garatzen al da?

GOBERNU-PROGRAMAREN KONPROMISOAK	BAI	EZ	ZALANTZAZKOA
1.- Enplegua eta pertsonak: alderdi hauetan zentratzen da ekin-tzailtza, berrikuntza, garapen jasangarria, lurralde-politika orekatua, administrazio gardena, sistema sanitario publiko eta kalitatezkoa, gazteria, kirola, adinekoak, familiak, ahulagoak diren pertsona, etxerik ez dutenak (28 azpiatal)	X		
2.- Bakea , giza eskubideak eta bizikidetz a	X		
3.- Estatus politiko berri bat Euskadirako: lurralde-artikulazioan sakontzea, estatutu politiko berria			X

b) Esku-hartzeak potentzialtasuna du 2013-2020 aldirako Osasun Planaren lehentasuneko arloetako baten helburuak lortzen laguntzeko

LEHENTASUNEZKO ARLOAK	BAI	EZ	ZALANTZAZKOA
1.- Ekitatea eta erantzukizuna	X		
2.- Gaixotasunak dituzten pertsonak	X		

⁵⁷ Dokumentuan zehar «esku-hartze» edo «proposamen» terminoak era berean erabiltzen dira arau, plan, programa, proiektu eta gainerako politika publikoak aipatzeko

⁵⁸ Atal hau kasu bakoitzera egokitu behar da. Proposamenaren garrantzia zehazten duten irizpideak erakunde bakoitzean indarrean dauden ildo estrategikoen mende egongo dira. Hemen proposatzen direnak baliozkotutako tresna eratzten zuten



LEHENTASUNEZKO ARLOAK	BAI	EZ	ZALAN-TZAZKOA
3.- Zahartzaro osasuntsua	X		
4.- Haur eta gazteen osasuna	X		
5.- Inguru eta jarrera osasuntsuak	X		

1.2. Proposamen politikoak eragin diezaiokeen biztanleria

a) Zein biztanleria edo talde sozialari dago zuzendua esku-hartzea? (xede-biztanleria)

Herritarrak, oro har

b) Xede-biztanleriaz gain, esku-hartzeak zeharkako eran eragin diezaiekeen beste talde sozial batzuk egon daitezke. Jarraian dauden taldeen artean, horietako zeini eragin diezaioke zuzenean edo zeharka?

<input checked="" type="checkbox"/> Emakumeak	<input type="checkbox"/> Pertsonak beren sexu-joeraren arabera
<input type="checkbox"/> Gizonak	<input type="checkbox"/> Dibertsitate funtzionala (fisikoa eta/edo mentala) duen biztanleria
<input checked="" type="checkbox"/> 65 urtetik gorakoak	<input type="checkbox"/> Biztanleria instituzionalizatua
<input type="checkbox"/> Gazteak	<input checked="" type="checkbox"/> Gaixotasun kronikoak dituen biztanleria
<input checked="" type="checkbox"/> Haurrak	<input type="checkbox"/> Pobretutako herrialdeetako immigranteak
<input type="checkbox"/> Ikasleak	<input type="checkbox"/> Beste herrialde batzuetako immigranteak
<input checked="" type="checkbox"/> Norberaren edo besteren konturako langileak	<input type="checkbox"/> Zaintzaileak
<input type="checkbox"/> Langabeak	<input type="checkbox"/> Landa-eremuan bizi direnak
<input type="checkbox"/> Maila sozioekonomiko altua duen biztanleria	<input type="checkbox"/> Hirigunean bizi direnak
<input checked="" type="checkbox"/> Maila sozioekonomiko ertaina duen biztanleria	<input checked="" type="checkbox"/> Nekazaritzan lan egiten duten pertsonak
<input checked="" type="checkbox"/> Maila sozioekonomiko baxua duen biztanleria	<input type="checkbox"/> Bestelakoak (zehaztu):
<input type="checkbox"/> Etxerik gabeko pertsonak



2. atala. Inpaktuak osasuneko mugatzaileetan eta osasun-arloko desparekotasunetan

Atal honetan, faktore sozialen zerrenda bat dago eta faktore horiek osasunarekin eta osasuneko desparekotasun sozialekin duten erlazioari buruz dagoen ebidentzia zientifikoan oinarrituta hautatu dira. OMEren Osasuneko mugatzaile Sozialen Batzordearen ereduarekin bat, faktore horiek bi kategoriatan sailkatzen dira:

1. taulako *osasuneko desparekotasun sozialen mugatzaile estrukturalek* testuinguru soziopolitikoari eta estratifikazio sozial nabarmenen ardatzei egiten die erreferentzia. Pertsonen mailaren baldintzatzaile gisa jarduten dute hierarkia sozialean, eta horren arabera era desberdinean heltzen da hurrengo mailara,

II. taulako *bitarteko mugatzaileak* faktore material eta bizi-baldintza, faktore psikosozial eta faktore indibidualei buruzkoak dira, esaterako, osasunarekin erlazionatutako jarrerak⁵⁹.

Aplikatu beharreko gomendioak

- **Lehenik**, zentra zaitetz ezkerreko zutabeko mugatzaile sozialetan proposamenak efekturik izango duen ezartzen. Identifikatu inpaktu mota hurrengo eskalaren arabera:
 - Oso positiboa: ++
 - Positiboa: +
 - Negatiboa: -
 - Oso negatiboa: --
 - Zalantzazkoa

Probableena da esku-hartzea ez erlazionatzea zerrendako mugatzaile guztiekin; beraz, ziur asko ukituko direnen inpaktua baloratuko da soilik.

- **Bigarrenik**, inpaktu bat osasuneko mugatzaile sozial batean identifikatuta, saia zaitetz zehazten ukituta egon daitekeen biztanleriaren talde edo azpitalderen bat dagoen (ez daude 1.2 atalean. Kasu hori bada, eskuineko zutabearen jarri.

59 OMEren Osasuneko mugatzaile Sozialen Batzordearen ereduak osasuneko desparekotasunak sortzen dituzten hainbat faktoreen lehentasun kausala nabarmentzen du, ingurune politiko eta sozialaren faktore estrukturalenetatik osasunarekin zerikusia duten jarrera indibidualetaraino jaitsiz.



I. taula.

Osasuneko desparekotasun sozialen mugatzaile estrukturalak

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKO ETA POLITIKOA	INPAKTU MOTA					
	(++)	(+)	(-)	(--)	ZALANTZAZKOA	BEREZIKI UKITUTAKO TALDEAK
Balio sozialak (osasuna, justizia soziala, ekitatea, jasangarritasuna)	++	+	-	--		
Ongizatearen egoera (gizarte, enplegu, osasun, hezkuntzako politikak, etab.)	++	+	-	--		
Garapen ekonomiko ekitatiboa	++	+	-	--	x	Ez du sistematikoki sartzen ekitatearen ikuspegia (OMSen bermatzeko neurri espezifikorik ez)
Gobernantza/ Gobernu ona	++	+	-	--		
ESTRATIFIKAZIO SOZIALARI BURUZKO FAKTOREAK (DESPAREKOTASUN SOZIALAK)	INPAKTU MOTA					
	(++)	(+)	(-)	(--)	ZALANTZAZKOA	BEREZIKI UKITUTAKO TALDEAK
Generoa	++	+	-	--	x	(+) ESE baxuko emakumeetan garrarioagatik, baina zalantzazko efektua du enplegu berde eta berrikuntzarako sarbidean
Jatorria/etnia	++	+	-	--	x	Ez du sistematikoki sartzen ekitatearen ikuspegia
Klase soziala (okupazioa, ikasketak-maila, errenta)	++	+	-	--	x	Ez du sistematikoki sartzen ekitatearen ikuspegia
Funtzio-aniztasuna	++	+	-	--		
Adina	++	+	-	--		Adinekoak
Sexu-joera	++	+	-	--		
Kokapen geografikoa (hiria-landa, gune degradatuak, etab.)	++	+	-	--	x	Landa-eremuko pertsonak eta konektibitatea (garrario publikoa)
Ideologia politikoa	++	+	-	--		
Sinesmen erlijiosoak	++	+	-	--		
Bestelakoak (zehaztu)	++	+	-	--		Nekazaritza-sektoreko langileak eta norbere konturako langileak



II. taula. Bitarteko mugatzaileak (1)

FAKTORE MATERIALAK ETA BIZI-BALDINTZAK		INPAKTU MOTA					
		(++)	(+)	(-)	(--)	ZALAN- TZAZKOA	BEREZIKI UKITUTAKO TALDEAK
Enplegua eta lan-baldintzak	Enplegu-aukerak	++	+	-	--		
	Enplegu-kalitatea (egonkortasuna, lanaldia, diru-sarrera egokiak, etab.)	++	+	-	--	x	
	Lan-baldintzak (segurtasuna eta higieena, arrisku fisikoak eta psiko-sozialak, etab.)	++	+	-	--	x	
Etxebizitzaren egoera	Kalitatea (etxebizitza eta eraikineren egoera)	++	+	-	--		ESE maila baxuko pertsonak
	Komunikazioa (ondasun, zerbitzu eta azpiegiturekiko distantzia)	++	+	-	--		
Ingurumena	Ura, aire eta lurzorua kalitatea	++	+	-	--		
	Zaratak, kutsadura akustikoa	++	+	-	--		
	Hondakinen kudeaketa	++	+	-	--		
	Espazio publiko egokiak izatea erlazio sozialetarako	++	+	-	--		
	Zirkulazio-dentsitatea	++	+	-	--		
	Ingurune naturala eta berdegu-neak	++	+	-	--		
	Meteorologia baldintzak	++	+	-	--		Adinekoak, klaseak behartsuei, umea biztanleria eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak.
	Bestelakoak (zehaztu): Ingurumeneko arrisku berriak	++	+	-	--	x	
Garraio azpiegiturak/mugikortasun	Garraio publikoa	++	+	-	--		Emakumeak, haurdun, adinekoak eta ESE maila baxuko pertsonak
	Garraio pribatua	++	+	-	--		
	Mugikortasun aktiboa (oinez, bizikletaz bidea, eta abar) sustatzen duten egiturak erabilgarritasuna	++	+	-	--		
	Bestelakoak (zehaztu)	++	+	-	--		
Sistema sanitario kalitatea	Kalitate teknikoa	++	+	-	--		
	Zainketa jarraitasuna, irrisgarritasuna, segurtasuna	++	+	-	--		Ibilgailua gabe pertsonak (ESE maila baxua, emakumeak eta adinekoak)
	Hautematen kalitatea (erabiltzailearen asebetetze)	++	+	-	--		



II. taula.
Bitarteko mugatzaileak (2)

FAKTORE MATERIALAK ETA BIZI-BALDINTZAK		INPAKTU MOTA					
		(++)	(+)	(-)	(--)	ZALAN- TZAZKOA	BEREZIKI UKITUTAKO TALDEAK
Aberastasuna atxikipena inguruko		++	+	-	--		
Ondasuneta- rako eta zerbi- tzuetarako sarbi- dea	Emplegu	++	+	-	--		
	Hezkuntza, prestakuntza eta trebetasunak	++	+	-	--		Ibilgailua gabe pertsonak (ESE maila baxua, emakumeak eta adinekoak)
	Elikadura-zerbi- tzuak	++	+	-	--		Ibilgailua gabe pertsonak (ESE maila baxua, emakumeak eta adinekoak)
	Elikadura osasun- tsua (segurtasun, kalitatea)	++	+	-	--	x	ESE maila baxuko pertsonak (batez ere hirietan)
	Etxebizitza	++	+	-	--		
	Zerbitzu Sanita- rioak	++	+	-	--		Ibilgailua gabe pertsonak (ESE maila baxua, emakumeak eta adinekoak)
	Gizarte zerbitzuak eta prestazioak	++	+	-	--		
	Dendak	++	+	-	--		Ibilgailua gabe pertsonak (ESE maila baxua, emakumeak eta adinekoak)
	Aisialdiko instala- zioak (kirol, kultura)	++	+	-	--		Ibilgailua gabe pertsonak (ESE maila baxua, emakumeak eta adinekoak)
	Berdegunek	++	+	-	--		
Bestelakoak (ze- haztu)	++	+	-	--			
Segurtasuna (fisikoa, krimena, mugimendu askatasuna)		++	+	-	--	x	
Bestelakoak (zehaztu)		++	+	-	--		



II. taula. Bitarteko mugatzaileak (3)

FAKTORE PSIKOSOZIALAK	INPAKTU MOTA					
	(++)	(+)	(-)	(--)	ZALAN-TZAZKOA	BEREZIKI UKITUTAKO TALDEAK
Estres psikosoziala (lan ezegonkortasuna, diskriminazioa)	++	+	-	--		
Laguntza eta kohesio soziala (familia, auzoa, sare sozialak)	++	+	-	--		
Autoestimua indibidual eta kolektiboa (ospe edo auzoan eta / edo hiri prestigioa)	++	+	-	--		
Segurtasun eza pertzepzioa (gizalege falta, delinkuentzia)	++	+	-	--		
Autonomia edo norbanakoaren auto-erantzukizuna	++	+	-	--		ESE maila baxuko pertsonak
Bestelakoak (zehaztu)	++	+	-	--		
FAKTORE INDIVIDUALAK: JOKABIDE OSASUNTZOAK	INPAKTU MOTA					
	(++)	(+)	(-)	(--)	ZALAN-TZAZKOA	BEREZIKI UKITUTAKO TALDEAK
Ariketa fisikoa	++	+	-	--		
Dieta sana	++	+	-	--	x	(+) Biztanleria, oro har, baina ez ziur ESE maila baxuko pertsonentzat (batez ere hirietan)
Tabako kontsumoa	++	+	-	--		
Gehiegizko alkohol kontsumoa	++	+	-	--		
Droga ilegala kontsumoa	++	+	-	--		
Praktika sexu segurua	++	+	-	--		
Pertsonen arteko harreman bultzatzen duten jolas edo aisialdiko jarduerak	++	+	-	--		
Bestelakoak (zehaztu)	++	+	-	--		



3. eranskina. Laburdurak

OLA:	Osasun-lentearen analisia
EAE:	Euskal Autonomia Erkidegoa
EEM:	Eremu elektromagnetikoak
OMS:	Osasunaren mugatzaile sozialak
IEE:	Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa
OIE:	Osasuneko Inpaktuaren Ebaluazioa
IIE	Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa
ELF:	Muturreko behe-maiztasuna
EJ:	Eusko Jaurlaritza
MINA:	Minbiziaren Ikerketarako Nazioarteko Agentzia
I:	Ingurumena
2020 IV. IEP:	IV. Ingurumen Esparru Programa 2020
EI:	Erradiazio ionizataileak
ESE:	Estatus edo maila sozioekonomikoa
OPG:	Osasuna Politika Guztieta

